


2018ko JARDUEREN MEMORIA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKEZPENA

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2019ko martxoaren 6an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2018. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Lehenengo eta behin, barne-antolaketa deskribatzen du eta zehazten du zein den Emakunderen zeregina, eta, horrekin bat etorritik, bi atal nagusitan egituratzen da: lehenengoak garatutako jardura jasotzen du, batez ere erakunde publikoen eremuan, politika publikoak diseinatzeko, sustatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko, horien jarraipena egiteko eta horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzen inguruko lana. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioari hiru mailatan, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta, bestetik, gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde batzuetan profesionaltasunaren bidez memoria honetan jasotzen diren jardura guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere, berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakundeko Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko guztioi.



Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	2		
1. Sarrera: Emakunde	4	3.2.3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak.....	59
1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde. Egitekoa eta antolaketa.....	5	3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena	60
1.2. XI. Legealdiko erronka handiak garatzen hasi ziren urtea.....	6	3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzak-erakundeen Sarea.....	60
1.3. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana	7	3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk	62
1.4. Emakundeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana (2018-2021)	8	3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena aldezteko sektore pribatua.....	62
1.5. Estrategia eta ekintza-plana Euskadin soldata-arrakala murrizteko	10	3.4. Gizarte-sentsibilizazioa	63
1.6. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko esparru juridikoa eguneratzea ..	11	3.4.1. Nahiko programa.....	64
1.7. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua.....	11	3.4.2. Beldur Barik programa.....	65
1.8. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana	12	3.4.3. Volar, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen ordainerako proiektua.....	66
1.9. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua.....	12	3.4.4. Gizonduz ekimena	66
1.10. Euskararen erabilera normalizatzea	13	3.4.5. Kanpainak	69
2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EREMUAN EGINDAKO JARDUKETAK.....	14	3.4.6. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea	71
2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa.....	15	3.4.7. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea.....	72
2.1.1. Administrazio autonomikoa.....	15	3.4.8. Hedabideetan agertzea	72
2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa.....	20	3.4.9. Berdintasunaren Emakunde Saria	73
2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak.....	25	3.4.10. Emakunderen webgunea eta sare sozialak	73
2.2. Politika publikoen ebaluazioa	38	3.4.11. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan.....	74
2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak	38	4. ERANSKINAK	81
2.3.1. Aholkularitza juridikoa.....	38	1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko dirulaguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.	82
2.3.2. Prestakuntza.....	41	2. ERANSKINA: Dokumentazio Zentroko kontsulten banaketa.....	84
2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak	49	3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.....	87
3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK.....	55	4. ERANSKINA: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.	95
3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea.....	56	5. ARGAZKIAK	98
3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin.....	56		
3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako dirulaguntzak	57		
3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak..	57		
3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza.....	58		
3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza	58		
3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak.....	58		





1. Sarrera: **Emakunde**



1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Egitekoa eta antolaketa

Egitekoa:

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundeak, berdintasunera bideratuta balioen aldaketaren alde egiteko, bi jarduera-eremu handi ditu: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko baliabide pertsonalak eta ekonomikoak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz; bestetik, gizartearekin orokorrean lan egitea, emakumeen ahalduntzea, gizarte- eta ekonomia-eraldaketa eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko.

Zuzendaritza-organoak:

Emakunderen jarduera gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua), honako kide hauek dituena: kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; kontseiluburuordea, Emakundeko zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte-gaiak; foru- eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria. Zuzendaritza Kontseilua 2017an berritu genuen, XI. Legealdiaren hasieran, maiatzaren 17an egindako bileran.



Emakundeko lantaldea 30. urteurrenean

- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). Izaskun Landaida Larizgoitiak Emakundeko zuzendari izaten jarraitzen du XI. Legealdian, aurreko legealdian egindako izendapenari jarraituz (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).



Kudeaketa organoak:

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. XI. Legealdia hasita, Zuriñe Elordi Romero Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (184/2017 Dekretua, ekainaren 27koa).
- Aholkularitza bat. Karmele Jaio Eigurenek prentsa eta komunikazioko aholkulari izaten jarraitzen du XI. Legealdian, X. Legealdian izendatu zutenetik.
- Eremu funtzionalak. Emakunderen barne-antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
 - Administrazioa.
 - Aholkularitza juridikoa eta informazioa.
 - Lankidetzaren instituzionala.
 - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza.
 - Programak eta prestakuntza.
 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
 - Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioa aldezte.

Koordinazio-organoak

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea.
- Emakunderen Aholku Batzordea - Emakumeen elkarten partaidetza-organoa.
- «Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren» Jarraipen Batzordea.
- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea.

1.2. XI. Legealdiko erronka handiak garatzen hasi ziren urtea

2018. urtea XI. Legealdiko erronka handiak garatzen hasteko aldia izan da Emakunderentzat. Erronka horiek oinarritzkoak eta lehentasunezkoak direnez, Erakundearen lanaren eta baliabideen zati garrantzitsu bat hartuko dute.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren zirriborroaren kontraste politikoa, teknikoa eta soziala egiteko partaidetza-prozesuaren ondoren, behin betiko dokumentua 2018ko ekainean onartu zen, eta era horretan, XI. Legealdirako Gobernuaren 15 plan estrategikoetako bat eta gure herrialdeko administrazio bakoitzerako ibilbide-orria eratu ziren, beren jarduketa-eremuetatik berdintasun-helburu berak landu eta partekatu ahal izateko.

Planaz gain, 2018. urtean, gure herrialdean, beste tresna garrantzitsu bat sortu da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari aurre egiteko, hala nola Estrategia eta ekintza-plan eragilea Euskadin soldata-arrakala murrizteko. Tresna hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen azaroan. Estrategiaren helburua da Euskadi 2030. urterako soldata-arrakala txikiena duten Europako bost herrialdeen artean egotea; horretarako, Plan Eragilea hartu du abiapuntutzat. Plan horrek datozen bi urteetarako neurriak ezartzen ditu.

Legealdiaren beste erronka handi bat, 2018. urtean garatu dena, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzuna finkatzea da. Erronka hori Legealdi honetako Gobernuaren konpromisoetan biltzen diren lege-ekimenetako bat da. Horretarako, joan den urtean, Emakundek egoera eta premiak aztertu eta hori arautzeko egon litezkeen bideen esplorazio-prozesu bat garatu du, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza bat bermatzeko Euskadin.



Beraz, Emakundek, 2018. urtean, egiturazko eta dimentsio anitzeko arazo bati (emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna) erantzutea erronka handia denez, tresna eraldatzaileen sorkuntzan jarri du arreta.

1.3. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana

2018ko ekainaren 19an, Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana onartu zen. Plan hori 2017. urtean hasi zen prozesu ireki eta arautu baten bitartez egin da, eta



EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana

gogoeta egiteko nahiz kontraste politikoa, teknikoa eta soziala egiteko uneak eta bideak prestatu dira; prozesu horretan, gainera, garrantzi berezia izan du EAEko emakumeen elkartegintzaren aldeko mugimenduaren parte-hartzeak.

Hamabost helburu estrategiko ditu XI. legealdiko Euskadi 2020 gobernu-programak, eta, horietako bat, hain zuzen ere, Euskadi Europako lehenengo herrialdeen artean kokatzea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Horretarako, Euskadiko politika, ekonomia, kultura eta gizartearen eremu guztietan berdintasun-bidean aurrera egiten jarraitu beharra dago; erakunde publiko guztien konpromisoa beharko da; eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearekin koordinatuta lan egin beharko da, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana garatzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana euskal botere publikoek berdintasuneko gaietan izan beharreko jardura orientatzeko egindako ibilbide-orria da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta haren sailek, foru-aldundiek eta udalek Berdintasunerako Legeak eskatzen dituen jarduketa-planen bitartez lortu behar dituzten esku-hartze helburu orokor nagusiak ezartzen dira VII. planean. Plan horietan zehazten eta gauzatzen dira VII. Planean adierazitako berdintasun-helburuak.

Planak eraldaketa soziala sustatu nahi du: hala administrazio publikoaren beraren egiturei eta prozedurei dagokienez, nola herritarrek beren gizarte-balioak berdintasunaren alde aldatzeari dagokienez. Horretarako, esku-hartzea lau eremuren inguruan antolatzea proposatzen da; eremu horietako bakoitzak bere programak eta helburu estrategikoak eta operatiboak izango ditu.

Eremu horien izena esku-hartzearen aukerekin dago lotuta, hots, jarduketak bideratu beharreko arloekin. Hauek dira eremuak:

- **Gobernu Ona**, zeinaren programazioa erakundeen barrurako begirada izango den, erreferentziako erakunde diren aldetik, antolamenduan eta funtzionamenduan berdintasuna txertatzeko.



- **Emakumeen ahalduntzea**, emakumeen eta neskatuen ahalduntzea bultzatzeko maila guztietan: pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan.
- **Ekonomiak eta gizartearen antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko** eta gizarte-eredu jasangarriagoa eraikitzen laguntzeko.
- **Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza**, prebentzioa landuz eta bizirik jarraitzen duten biktimei arreta osoa eskainiz erabat oneratu arte.

Guztira, agenda bat aurkeztu da eta esku hartzeko lau eremuetarako 13 programa, 37 helburu estrategiko eta 150 helburu operatibo hedatu ditu.

Plana kudeatzeko, egitura arautuak eta egonkorak erabilgarri daude, bereziki emakumeen elkarteak bultzatzeko, koordinatzeko, elkarte horiek elkarlanean aritzeko eta gizartean parte hartzeko.

Planaren ebaluazioa askotariko estrategia malgua erabiliz egingo da. Estrategia horrek betetze-mailaren ebaluazio sakona eta orokorra egingo du, baita koherentziari, prozesuari eta inpaktuari buruzko ebaluazioak ere, ikasten eta hobetzen laguntzeko.

Inpaktuaren ebaluazioak, sintesi estrategikoko adierazle-sistema baten bitartez, aztertuko du berdintasun-politikek nola eragingo duten politika horien hartzaile diren pertsonen eta kolektiboen egoera aldatzen, epe ertainera eta luzera. Sistema hori Genero Berdintasunaren Indizean (GBI) oinarrituta definitu da. Indize hori, halaber, Genero Berdintasunaren Europar Institutuak egin zuen eta EUSTATEk kalkulatu.

Genero-berdintasunaren indizea

Europar Batasunaren genero-berdintasunaren indizean Euskadi zer posiziotan dagoen ezagutzera emateko eta liderra den eremuetan lidergoari eusteko jardun behar duen eremuak ezagutzeko eta, batez ere, posizio hori hobetzeko jarduketak

areagotu behar diren eremuak zein diren jakiten laguntzeko, informazio-katalogo bat egin da.

VII. Planaren laburpena

Halaber, Berdintasunerako VII. Plana hedatzen eta ulertzen laguntzeko, planaren bertsio laburtua egin da. Bertsio horrek, gainera, ahalbidetzen du plana egiteko prozesuan batez ere emakumeen elkarteek eta gizarte-mugimenduek egindako gizarte-eskariari erantzutea.

VII. Plana argitaratzea eta banatzea

VII. Planaren laburpena, Genero-berdintasunaren indizearen katalogoa eta VII. Planaren bertsio inprimatua erakunde publikoei, EAEko dokumentazio-zentroei eta emakumeen elkartei banatu zaie eta Emakunderen webgunearen bitartez kontsulta daitezke.

1.4. Emakundeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana (2018-2021)

2018-2021erako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Emakunderen estrategia zehazten du XI. Legealdirako Gobernu Programan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean emakumeen eta gizonen berdintasun-arloan ezarrita dauden konpromisoak egikaritzeko.

Emakundeko Plana ez da plangintza-dokumentu isolatu bat, baizik eta erakundean jada sendotutako ibilbidearen esparruan hartzen du zentzua, izan ere, legealdi bakoitzerako berdintasun-arloan Eusko Jaurlaritzak ezarritako gidalerroak jarraituz, esku-hartzea egituratzen eta arautzen duten planen inguruan artikulatzen da.

Era berean, Plana Eusko Jaurlaritza osoa inplikarazten duen plangintza-prozesu baten parte da. Horrela, plana Sail guztietako eta haien erakunde publikoetako



eduki-egitura erkide batetik abiatuta egin da; horrek ikusgarritasun eta balio handiagoa ematen dio egindako lanari, hura homogeneizatzeari eta izaera sistemikoa emateaz gainera, instituzio guztian erkidea den –eta jarraipena egin dakiokkeen– plangintza- eta eraldaketa-prozesu baten parte den neurrian.

Dokumentu honek –horretan datza bere balioa– Emakundek bultzatzen dituen politikak planifikatzeko, lehenesteko eta eskuragarri egiteko tresna egokia izateaz gainera, politika horiek eraginkorrak eta eraldatzaileak izateko beharrezkoa den konpromiso politikoa adierazten du, hori baita esku-hartze publikoaren xedea eta erronka emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan.

Planaren egitura

Emakunderen emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak honako hauek jasotzen ditu:

- Lehen zatiak sarrera izaera du: dokumentua aurkezten da eta elaborazio-prozesuaren berri ematen da.
- Bigarren blokean, Plan honek XI. Legealdirako Gobernu Programarekin eta EAeko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin dituen loturen berri ematen da xeheki.
- Hirugarren zatian, berriz, 2018-2021 aldirako Emakunderen plangintza estrategikoa zehazten da. Informazio hori aurkezteko, lehenik eta behin, diagnostiko kuantitatibo labur bat egiten da, erakundeak bere plangintza hedatzeko erabiliko duen abiapuntua identifikatzeko balio duena. Datu horiek Planean jasotako –eta diagnostikoaren ondoren identifikatzen diren– helburu estrategikoak azaltzea ahalbidetzen dute.
- Azkenik, laugarren blokean, Planaren kudeaketa-sistemaren berri ematen da, non sartzen baitira bertan parte hartzen duten egiturak, baita plana eraginkorra izateko aurreikusten den plangintza-, jarraipen-, komunikazio- eta aurrekontu-sistema ere.

Helburu estrategikoak:

Hogeita zazpi helburu estrategikok osatzen dute Plana, eta datozen urteotako Emakunderen jarduketa zehazten dute. Oro har, erakunde honetatik hedatuko den esku-hartze estrategia marrazten dute eta bi maila desberdinetan egituratzen dira:

- Lehen mailan Emakunderen lehentasunezko lau helburuak identifikatzen dira, hain zuzen, XI. Legealdirako Gobernu Programan jasotako konpromisoekin lotura dutenak. Emakunderi dagokio beroriek bultzatzea eta Berdintasunerako VII. Planeko esku hartzeko arlo bakoitzari dagozkion helburuak dira.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken lidergoa EAEn –hor sartzen da VII. Planaren elaborazioa eta jarraipena–; emakumeen solaskidetzaz soziopolitiko handiagoa, beren ahaldunderako bide gisa; emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzea, soldaten esparruan bereziki; eta instituzioen erantzuna sendotzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, horretarako mekanismo egokienak ezarriz. Horiexek dira, beraz, lau helburuak. Emakundetik beroriei egingo zaie aurre, lehentasunez, hainbat jarduketaren bitartez.

Beren izaera zentrala eta lehentasunezkoa kontuan hartuta, helburu horietan kontzentratuko da Emakunderen lanaren eta baliabideen atal garrantzitsu bat, eta berorien garapenaren berariazko jarraipena egingo du Sailarteko Batzordeak.

- Bigarren maila hogeita hiru helburu orokorrekin osatzen dute; berorietan, VII. Planean ezarritako gidalerroak betetzera bideratzen da Emakunderen jarduketa. Helburu horiek VII. Planarekin lotura estuagoa badute ere, bat egiten dute lehentasunezko helburuekin honako honetan: emakumeen mendekotasuna eta bereizkeria sostengatzen eta justifikatzen dituzten balioak aldatuko dituzten baldintzak sortzea bilatzen dute, Gobernu Onean oinarritutako



gobernagarritasun-eredu baten, emakumeen ahalduntzearen, eta ekonomien eta gizarte-antolakuntzaren eraldaketaren bitartez, eskubideak bermatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko.

1.5. Estrategia eta ekintza-plana Euskadin soldata-arrakala murrizteko

Emakundek, Lehendakariarekin elkarlanean hertsiki arituta, soldata-arrakalaren aurkako estrategia egiten eta 2019-2020 aldirako ekintza-plana izango dena definitzen parte hartu du.

Plana egiteko prozesuaren esparruan, eta emakumeen eta gizonen artean dagoen ordainsari-desberdintasuna sektoreen, okupazio motaren, adinaren eta abarren arabera kuantifikatzeko asmoz, Emakundek «Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan, 2018» izeneko Txostena egin zuen. Txosten horren emaitzak Emakundeko zuzendari Izaskun Landaidak aurkeztu zituen Lan Harremanen Kontseiluak Bilbon duen egoitzan, martxoaren 20an bildu zen soldata-arrakalari buruzko mahaian.

2018ko azaroaren 27an, Eusko Jaurlaritzak Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Eragilea onartu zuen. Estrategiaren helburua Euskadi 2030. urtean soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatuta egotea da. Horretarako, batez ere honako erronka hauek landu behar dira berdintasunetik eta berdintasunerako: soldata-diskriminazioa, lan-segregazioa eta hezkuntza. 2019-2020 aldirako Ekintza-plan eragileak 4 jarduketa-ardatz, 20 gidalerro eta 60 neurri zehatz ditu. Estrategia eta Plan Eragilearen edukia Eusko Jaurlaritzako sailak, erakunde arteko talde bat eta Euskadiko Gizarte Elkarrizketarako Mahaia elkarrekin koordinatuz garatuko da.



Estrategia eta soldata-arrakala plana

Estrategia eta Plan Eragilea aurkezteko EAEko hiru lurraldeetan egin diren hiru bilkuretan hartu du parte Emakundeko zuzendariak.

- 2018/09/17: Jardunaldi parte-hartzailea Araban
- 2018/09/24: Jardunaldi parte-hartzailea Gipuzkoan
- 2018/09/25: Jardunaldi parte-hartzailea Bizkaian

Emakundeko zuzendariak, halaber, Estrategia eta Ekintza Plan Eragilea Gizarte Elkarrizketarako Mahaia aurkezteko abenduaren 4an egin zen ekitaldian parte hartu zuen.



1.6. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko esparru juridikoa eguneratzea

Eusko Jaurlaritzaren programak barne hartzen du legebiltzar-talde guztiek egin duten eskaera, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko esparru juridikoa eguneratzeko; esparru juridiko hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen VII. kapituluari jasotzen da.

Emakunderi agindu zaio zeregin hori, eta, horretarako, parte-hartzeko hainbat tailer antolatu zituen 2017. urtean. Diagnostikoa egiteko prozesu horren esparruan, hainbat arlotako pertsonak adierazi zuten –eta Emakunde ere alde zegoen– komeni zela Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen VII. kapituluari sendotzea eta osatzea, eta, hala badagokio, behar diren erregelamenduak garatzea. Horren guztiaren helburua da ez bereiztea indarkeriari aurre egiteko lana eta berdintasunari aurre egitekoa, Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen duenaren arabera, eta, hala, EAEn egindako lanaren ibilbideari jarraipena ematea.

Emakunderen aburuz, askoren ustez egokia den bide hori aztertu egin behar da, eta bide horren berri emateko, 2018ko ekainean, Emakundeko zuzendariak agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarrean. Agerraldi horretan, besteak beste, Emakundek proposatu zuen Gobernu Programan aurreikusitako legegintzako esku-hartzeari ekiteko biderik egokiena emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Lege bat egitea dela. Lege horrek gaur egun indarrean dagoen berdintasunerako euskal Legean jasota dagoena sakondu, eguneratu eta hobetuko du. Inplikaturako alderdiekin hainbat bilera eta harreman izan ondoren, Eusko Jaurlaritzak bere egin du Emakunderen proposamena, hau da, berdintasunerako euskal Legea aldatzeko aurreproiektua idaztea baldintza horietan.

1.7. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak araudiak eskatzen dituen dokumentuak onartu zituen 2018ko maiatzaren 22ko bileran:

- XI. Legealdiko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2017».
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2016.
- Emakunderen jarduketaren memoria, 2017an garatutakoa.



Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua



Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean egindako aurrerapenei eta 2018rako Emakunderen Jarduketa Planeko esku hartzeko lerroei buruzko informazioa jaso zuen, baita horien aurrekontuari eta laguntzen eta dirulaguntzen deialdien izapidetze-egoerari buruzkoa ere.

1.8. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2018an, agerraldi bat egin da Ogasun eta Aurrekontu Batzordean eta hiru agerraldi Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean, hamaika legez besteko proposamen eta hiru mozio. Era berean, hemezortzi galderari erantzun zaie idatziz eta honako txosten hauek igorri dira Eusko Legebiltzarrak horien berri izan dezan:

- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen 2017ko Jarduera Memoria.
- Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioen arloko 2017ko Jarduera Memoria.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordearen 2017ko Jarduera Memoria.
- «EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifrak, 2017» izeneko txostena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana botere publikoen alorrean gauzatzeari buruzko Jarduera Memoria, 2016.

1.9. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua

Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren (PEGIP 2020) esparruan, gardentasuna eta irekiera, efikazia eta efizientzia eta berrikuntza eta herritarren parte-hartze aktiboa hobetzeko zerbitzuak ematean, Emakundek honako jarduketa hauek egin ditu 2018. urtean:

Kudeaketa publiko aurreratuko eredua: Aurrerabide proiektuaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuko Eredua (EJKAE) ezartzerakoan,

2017ko Jarduketa Plana ebaluatu da eta 2016-2018 Sendotze eta Hobetze Plana prestatu eta gauzatu da. Garatutako beste jarduketa batzuen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Interes-talde nagusiek Emakunderekiko duten gogobetetasun-maila eta itxaropenak ezagutzeko ikerketa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa amaitu eta itzuli da. Hauek dira interes-talde horiek: Emakundeko langileak, euskal administrazio publikoetako berdintasuneko teknikariak eta Erakundearekin lankidetzan aritzen diren enpresak eta emakume elkarteak. Ikerketa horren ondorio gisa, hainbat lantalde sortu dira hobetzeko antzemandako hainbat alderdi lantzeko.
- EJKAE ebaluatzeko proiektu pilotuan parte hartu da.
- Erakundearen Barne Komunikazioko Plana eta Harrera Plana garatu da.
- Kudeaketaren bilaketan konpromisoa duten Euskadiko erakunde publikoek osatutako Q-Epea taldean sartu da.

Plangintza estrategiko adimenduna: Emakundek politika publikoak ebaluatzeko sistema ezartzeari buruzko proiektuaren Lankidetzeta Talde Teknikoan parte hartu du. Proiektu hori PEGIP 2020 planaren 2. ardatzean (Plangintza estrategiko adimenduna) kokatuta dago eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (HHABHZ) da horren buru.

Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria: Liburu Zuria hedatzean hartutako konpromisoak betetz, Emakundek kide anitzeko organoak ebaluatzeko eta hobetzeko proiektuan parte hartu du. Proiektu horren buru da, halaber, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (HHABHZ). Zuzendaritza horren egitekoak honako hauek dira: alde batetik, Euskadiko Administrazio Orokorren mendeko aholku-organoak arrazionalizatzea eta hobetzea, eta bestetik, Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak gauzatzeari, tresna baliagarriak, efikazak eta efizienteak izateko politika publikoak definitzeko, betetzeko eta ebaluatzeko garaian.



Berdintasuna saritzea: Bidasoaldeko Elkarte Feministak Emakunde saritu du Irungo Amaia Kultur Zentroan 2018ko abenduaren 4an egindako ekitaldi batean Emakundek berdintasunaren inguruan egin zuen defentsarengatik.



Euskaraldian parte hartu duten entitateak

1.10. Euskararen erabilera normalizatzea

Euskararen erabilera normalizatzeke Plan orokorraren esparruan, Emakundek 2017ko Kudeaketa Plana ebaluatu du, 2018-2022 aldirako Plan estrategikoa onartu du eta 2018ko Kudeaketa Plana onartu eta egin du. Egindako jardueren artean, nabarmentzekoa da Euskara Batzordea sortu, euskararen ahozko erabilerean neurketa egin, Emakunderen hizkuntza-irizpideak egin eta langile guztiei irizpide horien berri eman, sentsibilizatzeke eta prestakuntzako zenbait ekintza gauzatu eta proiektu hauetan parte hartu dugula: feminismoari eta berdintasunari buruzko hiztegi terminologikoa, euskal administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskara erabil dadin sustatzea, Euskaraldia eta Euskalitek antolatutako tailer bat, kudeaketa aurreratuari eta hizkuntza-kudeaketari buruz. Tailer horretan Emakundek eremu horretan duen esperientzia azaldu zuen.



Euskaraldia





2. **Administrazio Publikoen** eremuan egindako jarduketak



Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Atal hau botere publikoen bidez egindako ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan. Sustapeneko eta koordinazioko egitura organikoaren esparruan egiten diren ekintzak bereizten ditu, alde biko beste harreman-testuinguru batzuetan egiten direnak, eta prestakuntza eta aholkularitza, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak egitea eta abar helburu dituzten beste batzuk.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundearen koordinazioa

2.1.1. Administrazio autonomikoa

Emakundek Sailarteko Batzordearen bitartez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gauzatzen dituen jarduketak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea Emakundeko zuzendaria. Erakundeko Idazkaritza Nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakariatzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburu batek.

Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin zuen 2018ko uztailaren 3an. Bertan, honako dokumentu hauek aurkeztu ziren:

- Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan 2016an egindakoaren jarraipenari buruzko txostena.
- Eusko Jaurlaritzako sailek eta Emakundek XI. Legealdirako dituzten lehentasunak.

– Europar Batasuneko Berdintasunaren Indizea.

– 2017an egin zen aurreko bileraren eta 2018ko bilera honen artean dagoen aldiari Sailarteko Talde Teknikoak egindako lana, baita Eusko Jaurlaritzan berdintasun-politikak indartzeko SLTak egindako proposamena ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat, Batzorde honek Sailarteko Talde Tekniko bat du, eta horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Sailarteko Talde Teknikoa eta, sail arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen dio; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu.

Aholkularitza eta informazioko lanean, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek egindako kontsultei erantzun zaie. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzak eman da; batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintzak





Berdintasunerako Sailarteko Batzardea

abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

Hauek dira Emakundek Sailarteko Talde Teknikoaren alorrean 2018. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Sailaren berdintasunaren arloko plangintza-dokumentua egiteko prozesuaren eta epearen berri eman du.
- Eusko Jaurlaritzako sailen eta botere publikoen jarduketaren jarraipen-txostenei egindako ekarpenen berri eman du.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzardearen bileraren berri eman du.
- Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko tailerraren berri eman du; aipatutako tailerra Ogasun eta Ekonomia Sailak, HAEEK eta Emakundek antolatu dute, modu koordinatuan.
- Genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan sartzeko prozesua abian jarri dela jakinarazi du. Prozesu hori Ogasun eta Ekonomia Sailak sustatu du.
- Euskal administrazio publikoetako berdintasunerako teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektuaren berri eman du.
- Proposamen bat koordinatu du, berdintasun-politikak Eusko Jaurlaritzan indartzeko.

Beste sail batzuekin egindako proiektuak eta lankidetzako ildoak

Sailarteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gainera, Emakundek alde biko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakundeekin eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan dituzten eskariak kontuan hartuta. 2018. urtean, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Lehendakaritzarekin, Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Eragilearen diseinuan eta ezarpenean jardun dugu lankidetzan. Era berean, publizitateari buruzko Sailarteko Batzardean, Bake eta Bizikidetzako Planari buruzko Sailarteko Batzardean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartu dugu.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.
- EAEko biztanleriak hainbat eremutan (etxean, politikan edo lanean, adibidez) emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz dituen iritziak eta jarrerak



neurtzeko ikerketa bat egiten jardun dugu lankidetzan Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin.

- Landa Emakumeen Batzordean parte hartu dugu Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarekin.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailarekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroan, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan eta Familiaren Euskal Kontseiluan hartu dugu parte.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 eta 14. artikuluetan jasotakoari jarraikiz, genero-azterketa aurrekontu-prozesuaren maila guztietan sartzeko lan-metodologia hobetzeko eta berriz diseinatzeko prozesuan jardun dugu lankidetzan Ogasun eta Ekonomia Sailarekin. Bereziki, hobetzeko ekarpenak egin dizkiegu aurrekontuak egiteko gidalerro ekonomikoari eta teknikoari eta aurrekontu-programen genero-inpaktua ebaluatzeko formularioari. HAEEK urtero eskaintzen duen genero-ikuspegidun aurrekontuei buruzko tailerren ere parte hartu dugu. Tailer hori Emakundek eta aipatutako sailak elkarrekin diseinatu zuten. Era berean, genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan sartzeko prozesua egiten eta abian jartzen lagundu dugu. Eusko Jaurlaritzako sail guztietako artatzeko eta esku hartzeko unitateek ere parte hartu dute horretan.
- Hezkuntza Sailarekin batera, euskal hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren jarraipenean esku hartu du: Jarraipen Batzordean zein Batzorde Teknikoan parte hartu du, eta, horretaz aparte, interesa agertu duten ikastetxei Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eman die doan¹.
- Berdintasunaren eta feminismoaren eremuan euskarazko terminologia lantzeko eta kontsultarako tresna bat sortzeko proiektu bat garatzen ari gara Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin. Era berean, Sailarekin elkarlanean aritu gara «*Bertsolaritzaren bilakaera genero-ikuspegitik*» proiektuan.
- Kirolaren arloko profesionalentzako jardunaldi bat antolatu dugu, kirol-erakundeetan berdintasuna lantzeko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin elkarlanean.
- EUSKALIT - Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioarekin, lankidetzahitzarmenaren esparruan, zenbait jarduketa garatu ditugu hura betetzeko; besteak beste, kudeaketan berdintasun-jardunbideak identifikatzea eta horien aukeraketa bat aurkeztea elkarrekin antolatutako jardunaldi batean, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Biltzarrean.
- Gazteen Euskal Kontseiluarekin, dirulaguntza izendun baten bitartez, teknikoki eta ekonomikoki elkarlanean aritu gara, genero-ikuspegia txertatzeko funtzionamenduan eta bi erakundeen artean lankidetzak egonkorreko esparrua ezartzeko. Hori guztia, 2014an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Kontseiluak onetsitako legez besteko proposamenari erantzuteko; bertan, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazte Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkorrean eta etengabe berdintasunaren arloan, erakunde horrek osorik ekiteko genero-ikuspegiari jarduketa guztietan.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundearekin elkarlanean aritu gara Europar Batasunaren berdintasun-indize europarra kalkulatzeko, eta Euskal Estatistika Erakundearen bitartez, 2018-2022 aldiko Euskal Estatistika Plana egiten parte hartu dugu.

1. Programei buruzko xehetasun gehiago, 3.4.1 eta 3.4.2 ataletan.



- Osakidetzarekin elkarlanean jarraitu dugu, erakundean eta zerbitzu-prestazioan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana gauzatzen hasteko aholkularitza emanez.
- Osalanekin, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan, lanerako eta koordinaziorako hainbat bilera eta informazio-trukerako jardura egin ditugu, eta laguntza eman dugu 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren bitarteko ebaluazioan, besteak beste. Era berean, laneko osasunari buruzko jardunaldi bat antolatzen lagundu dugu, non Lan Ikuskaritzak ere parte hartu duen.

Plan eta programa sektorialeko buruzko txostenak eta aholkularitza

Politika orokorretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beste mekanismo bat Eusko Jaurlaritzako Sailek bultzatutako eta garatutako plan sektorial batzuei eta besteei dagokienez aholkua ematea eta ekarpenak, txostenak edo lan-bilerak egitea da. 2018an plan hauetan lagundu da, haiei buruzko txostenak egiteaz gain:

- 2018-2022 aldirako EAEko familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Plana.
- 2018-2020 aldirako herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuan jarduteko V. Plana.
- Euskadin haurren obesitatea prebenitzeko estrategia.

Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala geratzen da ezarrita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean. Zortzigarren xedapen gehigarria betetzeko, Gobernu Kontseilua da aipatutako ebaluazioa



Euskadin Familiei laguntzeko erakunde arteko IV.Plana

egiteko gidalerroak onesten dituen. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Emakundek 2007an sailek generoaren arabera eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, Emakundek 67 espediente jaso eta aztertu ditu 2018an. Hurrengo taulan, urteetan zehar izandako bilakaera ikus daiteke.



2006-2018ko DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
2018	7	37	33	0	67
Guztira	130	687	453	32	1.302

Gizonen eta emakumeen berdintasunerako erakunde publikoen sarea

Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea online bultzatu da Gobernuaren Share-Point plataforma barnean. Erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu, indartu eta koordinatzea ditu helburutzat sareak, ikaskuntza partekatuaren eta elkarlaneko lanaren bitartez. Gaur egun, Sarea honako 25 erakunde hauek eratzen dute:

1. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
2. ALOKABIDE
3. BASQUETOUR
4. CEDEMI
5. CEIA
6. EJIE
7. ELIKA
8. ERAKUNDE ZENTRALA-OSAKIDETZA
9. ETXEPARE EUSKAL INSTITUTOA
10. EUSKADIKO KIROL PORTUA
11. EUSKAL IRRATI TELEBISTA EITB
12. EUSKO TRENBIDE SAREA
13. EUSKOTREN, S.A.
14. HAURRESKOLAK PATZUERGOA
15. HAZI
16. IHOBE, S.A.
17. ITELAZPI
18. IZENPE
19. METRO BILBAO
20. NEIKER
21. EUSKADIKO ORKESTRA SA
22. SPRI
23. UNIBASQ
24. URAREN EUSKAL AGENTZIA
25. VISESA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sarean parte hartzen duten erakunde publikoen berdintasun-politiken garapena finkatzeko asmoz, teknikari aditu baten laguntzaren bitartez, Oreka Sarea SL enpresaren laguntza teknikoak izan da. 2017ko azken hiruhilekoan hasitako prozesu batetik abiatuta, aurten 6 lan-saio garatu dira; lan-saio horietatik 4 saio kolektiboak izan dira eta 2 kontraste-talde gisa garatu dira. Lan-saioen datak eta edukiak honako hauek izan dira:

- Urtarrilak 20/21: Kontraste-taldeak.
- Apirilak 11/18: Aurrerapenak baliozkotzea. Aldaketa finkatzea.



- Maiatzak 30/31: Kontraste-taldeak.
- Ekainak 19: Erakunde-kulturaren gaineko begirada: berdintasunaren aldeko aldaketarako erresistentziak eta bultzadak.
- Irailak 28. Abiarazi protokoloa! Hautemate, adierazpen eta inpaktu sexista, sexuala eta genero-identitatearen arabera.
- Urriak 18: Aurrerapenak neurtzea etorkizunera begiratzeko: Gure erakundeetan eta gure sarean azken urte honetan egindako lanaren ebaluazioa.

2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Batzordea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun urtarilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren bidez arautua, administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita, zuzendaria da buru eta euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak zati beretan eratzen dute.

Sailarteko Batzordeak 2018ko abenduan ohiko bilera egin zuen, eta gai hauek landu zituen:

1. EAEko berdintasun-politiketan kalitate-estandarrak ezartzeari buruzko akordioa aurkeztea eta onartzea.
2. Emakunde Europar Batasuneko Berdintasun Indizeari dagokionez egin duen dokumentuari buruzko informazioa.

De acuerdo con lo dispuesto en el Decreto regulador de la Comisión Interinstitucional, esta Comisión dispone de un Grupo Técnico Interinstitucional que estudia, elabora un informe y propuestas, y presta apoyo y asesoramiento técnico a las y los miembros de dicha Comisión en su función de coordinar las políticas y programas que en materia de igualdad de mujeres y hombres desarrollan la administración autonómica, foral y local.

Halaber, Erakunde arteko Batzorde horren esparruan, Emakunde Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2011n sortu zirenetik:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, dirulaguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak** 2018an, lantalde hori behin elkartu da «*Genero-ikuspegia kontratu publikoetan, dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan txertatzeko*



Erakundearteko Batzordea



gidaliburu» eguneratzeko eta Kontratazio Publikoari buruzko Lege berrira egokitzeko prozesua sustatzeko. Gainera, aipatutako gidaliburuaren eguneratetik abiatuta, Emakunderen webgunean kontratueta eta dirulaguntzetako berdintasunari buruz dagoen atalaren edukia aztertu da, atal horretako edukia birbanatu eta osatze aldera, eguneratzeko eta eskuragarriago egiteko xedez.

- **Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzeko eta erakunde arteko koordinazioa hobetzeko lantalde teknikoak:** lantaldean parte hartzen duen erakunde bakoitzak egindako banako lanaz gain, lau bilera egin dira. Bilera horiei esker, EAEko berdintasun-politiketan kalitate-estandarrak ezartzeari buruzko akordio-proposamen bat diseinatu ahal izan da. Proposamen hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak aurkeztu eta onartu du.
- **Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuari buruzko lantalde teknikoak.** Aurrez aurreko bilera bat egin da; bilera horretan erabaki da jasotako proposamenen artetik zeintzuk betetzen dituzten Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuan sartu ahal izateko ezarritako irizpideak.

Bestalde, EAEko udalentsako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana burutu da.

Sailarteko Batzordearen esparruan egindako lanaz gainera, Emakundek udalentsako beste lankidetzak- eta laguntza-ildo batzuk ditu.

Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek konpromisoa hartu zuen sarea

dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatze finantzaketan parte hartzeko, eta EUDELekin konpromisoa hartu zuen hori sortu eta kudeatzeko, orobat hori garatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dutena. Honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jardura gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatzen dute, baita Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen diren teknikariek eta Emakundeko teknikari batek ere.

Hauek izan dira, zehazki, 2018an Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELekin sinatutako hitzarmena berri du.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariek eta teknikariek lan egin du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu da eta hartutako akordioek jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu du eta onartutako akordioek jarraipena egin du.
- Virginia Woolf Basqueskola emakume politikarientzako eskolaren 2018ko programazioak barne hartzen dituen jardueren garapenaren jarraipena egin du.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioetan parte hartu du.



- «Generoaren araberako eraginaren aurretzako ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gidaren» argitalpena diseinatzea eta aurkeztea.
- Berdintasunaren aldeko gizon hautetsi taldea koordinatzea.



Baskeskola-ren aurkezpena Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluan

Berdinbidean - biztanle gutxiko udalerriek berdintasun-politiketan aholkatzeko eta dinamizatze zerbizua

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Hala ere, udalerririk txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak–.

Jende gutxiago bizi den udalerriek emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta ekintzak garatzeko dituzten zailtasunen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza emateko programa espezifiko bati ekin zion, eta, ondoren, Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere ezarri zuten programa hori. Horrela, foru-aldundiek Berdinbidean programa sortu zuten, hiru lurralde historikoetako udalerririk txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko. Honako hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Udal txikien emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak martxan jartzeko aukera izatea, Berdinsarearekin koherentea den estrategia bati jarraikiz, eta sare horretara epe ertainera sartzeko aukera ematea.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrilletan elkarrengana hurbil daitezzen, esperientziak truka ditzaten, koordinatu daitezzen eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Jarduketa hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerririk txiki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Eskualde eta/edo lurraldeetan lanerako guneak sortzen dira, udalerririk txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako



lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

2018an Emakundek, Eudelekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren eremuan, elkarte horri dirulaguntza eman dio udalerririk txikietan berdintasuna sustatzeko jarduerak egiteko.

Eudeleko lehendakariari Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko Berdintasun Batzordean laguntzeko dirulaguntza.

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (EUEK) 1951. urtean sortu zen, eta Europako tokiko eta eskualdeetako gobernuen erakunderik handiena da. 41 herrialdeetako 60 erakundek osatzen dute eta horiek 150.000 udalerririk baino gehiago ordezkatzeko dituzte. Kontseilurak horrek Europa elkartu bat sustatzeko lan egiten du, tokiko eta eskualdeko autogobernuan eta demokrazian oinarrituta.

2015eko ekainaren 26an, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak bere Berdintasun Batzordearen Lehendakariak helarazi zion Eudeli, eta hark kide diren herrialdeetako berdintasun-politiken organo koordinatzaile goren gisa jarduten du gaur egun. 2018ko ekainera arte Batzordeko lehendakaria izango da Ibon Uribe, Galdakaoko alkatea eta Eudelen Berdintasunerako Batzorde Eragilearen ordezkaria.

EUEKren Berdintasunerako Lehendakariak nolabaiteko bermea ematen die euskal udalerririk eta euskal herritarrek egindako lanari eta ibilbideari. Horrez gain, euskal erakunde guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako lan guztia aitortzen du. Lehendakariatik eratorritako premiak eta itxaropenak bete ahal izateko, Emakundek dirulaguntza bat eman dio Eudeli. Gainera, Emakundek Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko Nazioarteko Konferentzian parte hartu dugu. Konferentzia Eudelek eta EUEK-k antolatuta zuten, eta Bilbon egin zen.

Udalerriek, kuadrillek eta mankomunitateek dirulaguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten.

Dirulaguntzen deialdia Emakundek udalerririk laguntza tekniko emateko erabiltzen duen beste tresna bat da. Tokiko erakundeek ematen zaizkie dirulaguntza horiek, emakumeek eta gizonen udalerririk bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EA Erako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz. 2018an egin den deialdian kopuru ekonomikoa 360.000 eurokoa izan da, abenduaren 16ra arte egin diren proiektuak finantzatzeko.

27 udalerririk eta 6 mankomunitate, kuadrilla eta/edo talderik dagozkien 33 proiektu diruz lagundu dira².

Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EA EKO berdintasun-politikek jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legealdi bakoitzaren hasieran. Lege horretan bertan jasotakoari jarraikiz, sail guztiek, organismo autonomoek, foru-aldundiek eta udal beren planak plan orokor horretan ezarritako jarraibideen arabera prestatu behar dituzte.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek Euzko Jaurlaritzako sailen eta foru- zein toki-administrazioen berdintasun-planek buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezkeen: erakunde bakoitzaren berezko beharrezko diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate



sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten, Eusko Jaurlaritzaren Sailerako XI. Legealdirako 8 berdintasun-planen berri eman da, baita tokiko erakundeen 23 planen berri ere. Plan horiek ondorengo taulan azalduko dira.

Hauexek dira:

Lehenengo Planak	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bostgarren Planak
Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2018-2021)	Aretxabaletako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2019-2022)	Derioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021)	Abanto Zierbenako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2019-2022)	Santurtziko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2018-2019)
Aiarako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2018-2021)	Azkoitiko Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasunerako Plana (2018-2021)	Lezamako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021)	Irungo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2017-2021)	
Arabako Mendialdeko Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2018-2021)	Bergarako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2018-2021)	Loiuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021)	Larrabetzuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2018-2021)	
Eako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana	Nabarnizko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2017-2021)	Sondikako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021)	Gasteizko Geroaren Berdintasunerako IV. Plana (2018-2021)	
Etxebarriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana (2017-2020)	Txorierriko Mankomunitateko Zerbitzuen II Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasun Plana	Zamudioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2018-2021)		
Oiartzungo I. Plan Feminista		Zumaiako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana		
I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Zaratamo (2018-2021)				



Foru- eta toki-administrazioen esparruan **beste lankidetzak hauek** dira aipatzekoak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartzea;
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako mintegian genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioei buruzko adituek parte hartzea.



Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak

Alde batetik, administrazio autonomikoarekin duen harremanaz gainera, eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekin duenaz aparte, Emakundek gure gizartea osatzen duten beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinazioan jarduteko eta parte hartzeko egitura egonkorra ditu.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakunde arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduketa-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalak erabili behar dituzten jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere esparruan egin behar duen lanerako, bai erakundeen arteko harremanetarako. Batzordeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.



Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, baita beste lantalde batzuk ere, aldi baterako direnak, Batzordeak edo Erakunde arteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera gaiak aztertzen dituztenak. Gaur egun, funtzionamenduan dauden taldeak harrera-baliabideen gaineko taldea eta informazio sistema-taldea dira.

II. Akordioari jarraipena egiteko Batzordeak lan-saio bat egin du abenduaren 18an.

Erakunde arteko Talde Teknikoa

Jarraipen Batzordearen barruan, Erakunde arteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 2 bilera egin ditu.

2018ko ekainaren 26an, bilera bat egin zen. Bilera horretan, erakundeek seme-alaben arreta hobetzeari buruz egindako lanaren berri eman zuten, beren esperientziak partekatzeko eta biktima horiei bideratutako baliabideen inguruan dauden zailtasunei eta aurrerapenei buruz eztabaidatzeko. Era berean, EDEKArekin batera (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak ordezkatzeko dituzten desgaitasunaren eremuan) egiten ari den dokumentuaren zirriborroa aurkeztu du Emakundek. Dokumentu hori emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren eta desgaitasuna duten emakumeak artatzen dituzten eta Erakunde arteko II. Akordioan parte hartzen duten profesionalentzat da. Dokumentu praktiko eta arina egin nahi dugu, dibertsitate funtzionala duten biktimei lehenengo harrera egiteko moduari buruzko gomendioak bilduta.

Geroago, urriaren 16an, Erakunde arteko Talde Teknikoak bigarren bilera egin zuen. Bilera horretan hainbat gairen inguruan jardun zuten, esate baterako, ikusten da Erakunde arteko II. Akordioa berrikusteko eta luzatzeko premia dagoela, estatuko arau-aldaketa berriak, eta talde teknikoan egindako eta Jarraipen Batzordean onartutako aurrerapenak txertatzeko eta Istanbuleko Hitzarmenera egokitzeko, besteak beste. Halaber, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeek

ematen duten erantzunaren inguruan izandako aurrerapenen berri eman zuen Emakundek.

Informazio-sistemen taldea

Informazio-sistemen taldeak lan-saio bat egin zuen 2018ko azaroaren 28an. Bertan, aurreko ekitaldiari dagozkion datuen bilketa homogeneoaren emaitzak jakinarazi ziren. 2018. urtean zehar, hirugarren urtez jarraian, Erakunde arteko II. Akordioan parte hartu duten EAEko erakunde guztiek estatistika-datuak pasa dituzte Emakundek gaitutako aplikazio informatiko batera. Datu horiek indarkeriarik gabeko bitzita lortzeko helburuarekin laguntza eske joaten diren emakumeei buruzko informazioa ematen dute, hala, indarkeria jasaten duten Euskadiko emakumeei eskainitako arretaren irismena nolakoa den ezagutzeko. Lan hori txosten honetan jaso da: «*EAEko indarkeriaren biktima diren emakumeei 2017an eman zaien arretaren irismenari buruzko datuak. INFORMAZIOAREN AZTERKETA*».

Aurreko urteetan bezala, hirugarren txosten baten argitalpenaren berri eman zen; txosten horretan, EAEko estatistikez gain, Estatuko eta Europako inkestak eta ikerketak aipatzen dira. Txosten horren helburua da erkidegoko datuek aurreratzen dizkiguten hipotesiak arakatzea eta horiei eustea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren benetako larritasuna ezagutzeko. Txosten hori Emakunderen webgunean argitaratuta dago, izenburu honekin: «*EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2017.*»

Era berean, «*EAEko indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateari buruzko baliabideen mapa, 2018*» txostena egin da. Txosten horrek indarkeria mota horri erakundeak EAEko gaur egun ematen ari diren erantzunen berri ematen du. Eskaintza publikoa erakusten du mapak, eta barnean hartzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeentzako programak eta zerbitzuak, erantzukizun publikokoak direnak, dela administrazioak berak



zuzenean kudeatzen dituenak, dela erakunde pribatuekin egindako hitzarmenen bidez ematen direnak.

Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako erakunde arteko beste lankidetzaz-prozesu batzuk

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean jarduteko tokiko protokoloak.-

Emakundek protokoloen berri ematen du toki-administrazioek horrelakorik eskatzen badute, hala, horiek sustatzen dituzten administrazioek erreferentziatzko eta segurtasunezko esparru komun bat izan dezaten. Aurten ez da idatzizko txostenaren eskaerarik jasoo.

Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM).- 2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erauzketa hori emakumeen aurkako indarkeria mota bat den aldetik.

2014. urtean EAEn egindako Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta Euskal Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMri aurrea hartzeko osasun- eta hezkuntza-arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalek osatutako osasun-taldeak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzegune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzaitzako profesionalek osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2018an, Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Gainera, urtero bezala, NBEK Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako informazio- eta sentikortze-



“Emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioa eta esku-hartzea” jardunaldia

ekintzak areagotzeko eskaera egin du, horren Nazioarteko Eguna dela eta. Eta Emakundek eskaera horren alde egin zuen, laugarren urtez jarraian.

Sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketa.-

Gizakien salerosketari dagokionez, Askabide erakundearentzako dirulaguntza izapidetu eta kudeatu da, ostatu duina eta segurua emateko, baita sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeentzako arreta osoa kudeatzeko ere. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako dirulaguntza izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien



salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

Gainera, maiatzaren 10ean, Emakumeen eta Neskatoen salerosketari buruzko mahai osoaren bilkura egin zen; mahai horretan parte hartzen dute, Emakundez gain, Segurtasun Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lana eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, hiru foru-aldundietako Adingabeen zerbitzuak, eta Espainiako Gobernuak Euskadin duen Ordezkaritzako, Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta hamaika GKEetako ordezkariak.

Salerosketari buruzko mahaiaren ekintza-planaren zati gisa, Emakundek, ekainean eta abenduan, lau prestakuntza-jardunaldi egin ditu salerosketari buruzko mahaia osatzen duten erakunde guztientzat, baita gai hori lantzen duten beste erakunde batzuentzat ere. Era berean, Comillaseko Unibertsitateko Carmen Meneses doktoreari agindu dio, Emakumeen eta Neskatoen Salerosketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen egoerari buruzko diagnostiko bat egin dezala Deustuko Unibertsitateko ikerketa-talde batekin elkarlanean. Talde horrek landa-lana egingo du.

Emakunderen Aholku Batzordea - Emakume elkarten partaidetza-organoa

Emakumeek beraiek politika publikoen diseinuan parte hartzea orokorrean aintzat hartuta dagoen beharizana da. Horregatik, Emakunderen lehentasunezko jarduera-ardatzetako bat emakumeen elkarten sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan berdintasun-politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakunderen Aholku Batzordea; hari esker,

gainera, gero eta handiagoa da berdintasun handiagoa lortzeko sentsibilizazioaren eta gizarteko aldaketen arloan elkarteek egiten duten ekarpena.

2018an, Aholku Batzordeak jarraipena eman die solasaldi- eta komunikazio-organoaren ohiko zereginei Euskadiko elkarten mugimendurekin, eta sendotu egin da, aurreko urtean bezala, prestakuntza-saio eta lurraldeko kontsultarako azpibatzerdeen esparruan solasaldi soziopolitikorako laguntza-saioen bidez. Emakundek, bestalde, Aholku Batzordeak EAEko administrazio publikoen maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkari izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.



Bizkaiko Aholku Azpibatzerdea



Emakundek emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatu, taxutu eta sendotzeko lan egiten du. Dinamika horietako batzuk lankidetzan egin dira Jaurlaritzako beste sail batzuekin. Esparru horretan elkarrekin lan egiten dugu lurralde-eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.

Emakunderen Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira, eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez. 2018an, hogeita hamar bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, Aholku Batzordearen solasaldi soziopolitikoak indartzeko.

Begira – Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordea

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko helburuz. Komunikabideek gizartean, errealitatearen pertzepzioan, eta balioen eraikitzean duten eragin nabarmena kontuan izanik, eta 4/2005 Legeak ezarritakoa betetzeko, Emakundek komunikabideen arloa ere batzordearen barnean jorratzea erabaki du. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez Batzorde berria arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan pertsonen –sexu batekoak edo bestekoak izateagatik– giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, bi sexuen irudi berdinzalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanonik eta sexu-estereotiporik gabekoa sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukiak.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako kekek jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.

Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Institutuzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarteko, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonak osatzen dute batzordea.

2018an, Begira batzordeak aurreikusitako bi ohiko bilera egin zituen. Horietan, Ekintza Planean jasotako jarduketak proposatu, egiaztatu eta onartu ziren. Lehenengo bilera maiatzaren 8an egin zen, eta bigarrena abenduaren 11n.

Lan-bilerez gainera, batzordeko kideen arteko lankidetzak etengabea izan da online plataforma bati eta lantalde espezifikoei esker, jarduketa zehatz batzuk egiaztatzea xede izan dutenak.

Illo horretan, hona hemen aztergai dugun urtean aurrera eramandako jarduketa garrantzitsuenak:

- Herritarren 77 kexa jaso eta izapidetu dira, publizitate eta komunikazio sexistari buruz (horrek esan nahi du % 17 baino gehiago jaitsi direla, aurreko urtearen aldean).
- Aholkularitza-lanarekin eta txosten eta gomendioak egiten jarraitu da, genero-ikuspegitik, publizitate- eta informazio-edukiei buruz.



- Batzordea osatzen duten pertsonen lankidetzarako online plataforma administratzen eta dinamizatzen jarraitu da, Begira espazioarekin Emakunderen webaren esparruan, baita gizarte-sareetan eta Begira App mugikorreko aplikazioan ere.
- EAEko publizitate eta komunikazio sexistari eta BEGIRAREN jarduerari buruzko 2017ko urteko memoria prestatu, editatu, onartu eta zabaldu da.
- Azterlan hau diseinatu eta garatu da: «*Sexismoa "Aitaren eguneko" eta "Amaren eguneko" publizitate-kanpainetan*». Azterlan horren helburu nagusiak honako hauek dira: Euskadin egin eta argitaratzen den publizitatea, genero-ikuspegitik begiratuta, monitorizatzeko tresna bat diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea; eta monitorizazio-tresna «*Aitaren eguneko*» eta «*Amaren eguneko*» kanpainetan hedatutako publizitate-edukietan aplikatzea.
- Era berean, EHUrekin elkarlanean arituz, «*Emakumeek euskal hedabideetan izan duten presentziari buruzko II. azterketa (2018)*» izeneko txostenaren monitorizatzeko kuantitatiboa egin da. Azterketaren helburu nagusia hau aztertzeko izan da: emakumeek zenbateko ikusgaitasuna duten informazio orokorra eskaintzen duten tokiko eta eskualdeko informazio orokorreko hedabide nagusietan eta, horrela, informazio orokorra eskaintzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko ohiko hedabideen eta horien Interneteko edizioen goiburuei buruz 2015-2016 aldian egindako azterketa osatzea.
- Bestalde, EHUren lankidetzarekin azterlan hau garatu da: «*EAE genero-indarkeriaren bidez hildako biktimen inguruko informazio-tratamenduari buruzko analisia (2015-2017)*». Proiektu horri 2017ko azaroan ekin zitzaion eta 2018. urtean zehar amaitu da, helburu nagusiak honako hauek izanik: genero-indarkeriaren kasuak hedabideetan aztertzeko adierazleak definitzea; 2015-2017 aldian Euskadin heriotza eragin duten genero-indarkeriaren kasuak identifikatzea; kasuei buruzko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea;

eta, sinatu duten hedabideek Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autorregulaziodun betetzen ote duten, edo, hala badagokio, zerbateraino betetzen duten azterzea.

- Bestalde, ENRED SLrekin lankidetzan «*BEGIRA, Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearen 2013-2017 aldirako ebaluazioa*» azterlan diseinatu eta garatu da. Azterlanaren helburu nagusiak honako hauek izan dira: egindako lana Begira arautzen duen Dekretuan (360/2013) proposatutakora zerbateraino egokitzen den jakitea; lortutako emaitzei buruzko informazioa edukitzea; Batzordeak garatutako lanean inplikaturako eragileen inpaktuak eta gogobetetasun-maila ezagutzea; eta, funtzionamenduaren inguruan edo kontuan hartu behar diren estrategia berriei buruz jarraitu, indartu edo hobetu behar diren alderdiei buruzko proposamenak jasotzea.

Begira Batzordea sortu zenetik, bere proiekturik nabarmenena izan da espazio partekatu bat sortzea komunikabideekin eta publizitate-agentziekin, kode deontologikoa eta autorregulazio-kodea egiteko lankidetzaren prozesu batean. Prozesu hori 2014an hasi eta 2015ean amaitu zen. Kode deontologikoa bat eta bi dekalogo egin ziren, hainbat parte-hartzaileekin: bata, komunikazioaren arlorako eta, bestea, publizitateko. Aurkezpen eta atxikimenduen ondoren, 2016an kodea ezartzea sustatu zen sare bat sortu, kudeatu eta dinamizatuta, aipaturako sarea ezagutza partekatzeko gunea izateko. Euskadin publizitate eta komunikazio ez-sexista izateko Kode Deontologikoa eta Autorregulaziodun atxikitako erakundearen Begira Sarea izeneko da.

2018an, 3 jardunaldi proposatu dira gai-eremu jakin baten inguruan (KIROLAK), gai horretan sakontzeko, gogoeta egiten laguntzeko eta antzeman daitezkeen hobekuntza-eremuetarako tresnak eta erantzunak bilatzeko.

Gaur egun, Begira Sarea 21 publizitate-agentziak eta 36 hedabidek osatzen dute:



PUBLIZITATE-AGENTZIAK

1. AD HOC
2. ADCLICK
3. ARISTA
4. BIZKAIKO PUBLIZITATE AGENTZIEN ELKARTEA
5. AURMAN
6. BELL COMUNICACIÓN
7. BIOD
8. BOSTNAN
9. COMUNITAC
10. SORLAND
11. DIMENSION
12. FIDELIZA/XABIDE
13. FOOCUZZ
14. IMAGINE GROUP
15. KAHLOMEDIA
16. LABOX
17. MOMIK
18. PATANEGRA
19. THINKONMARKETING
20. TRUPP PUBLICIDAD
21. VK COMUNICACIÓN

HEDABIDEAK

1. AIARALDEA
2. AIKOR TXORIERRI
3. ALEA ARABAKO ALDIZKARIA
4. ANBOTO ASTEKARIA
5. EUSKAL KAZETARIEN ELKARGOA
6. BEGITU
7. BERRIA
8. BIZKAIA IRRATIA
9. EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEA
10. COPE
11. DEIA-GRUPO DIARIO DE NOTICIAS
12. DIARIO NORTE
13. DIARIO VASCO
14. EFE
15. EITB
16. EL CORREO
17. EL MUNDO PV
18. ELHUYAR
19. ESTRATEGIA EMPRESARIAL
20. EUROPA PRESS
21. GARA
22. GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA
23. HAMAICA TELEBISTA
24. HEKIMEN
25. HIRUKA S.COOP
26. HITZA BUSTURIALDEA
27. LASARTE-ORIAKO TXINTXARRI
28. MBN
29. NOTICIAS DE ALAVA
30. NOTICIAS DE GIPUZKOA
31. ONDA CERO
32. ONDA VASCA
33. RTVE
34. SER
35. TOKIKOM
36. URUMEAKO KRONIKA



2018an, halaber, bideoak zabaldu dira publizitatearen eta komunikazioaren arloetako gaikako gomendioak emateko, eta Euskadin publizitate eta komunikazio ez-sexistarako deontologia- eta autorregulazio-kodea eta kode hori eraginkor bihurtzen duten berriazko dekalogoak ezagutarazteko:

- [Publizitate ez sexistarako dekalogoak](#) (youtube)
- [Umeentzako iragarkiak egiteko gomendioak](#) (youtube)
- [Komunikazio ez-sexistarako dekalogoak](#) (youtube)
- [Publizitate eta komunikazio ez sexistarako autoerregulaziorako kode deontologikoa Euskadin](#) (youtube)
- [Hauteskunde-kanpainen informazio-trataeraren erabilera sexistak antzemateko gomendioak](#) (youtube)

Ekainaren 1ean, Emakundek eta BEGIRAK genero-estereotiporik gabeko publizitateari buruzko tailer bat antolatu zuten 2018an Bilbon egin zen El Sol Publizitate Jaialdi Iberoamerikarrean.

El Sol, Publizitate Komunikazioaren Jaialdi Iberoamerikarraren esparruan «Genero-estereotiporik gabeko publizitatea: sormenerako erronka» izenburupeko tailerra egin zen. Tailerraren helburua izan zen, alde batetik, hausnar egitea eta konturatzea zer garrantzitsua den emakume eta gizon talde anitzen eskutik sormena sustatzea publizitate-mezuetan oraindik bizirik dauden estereotipoei aurre egiteko, eta, bestetik, estereotipo horiek alde batera utzita beste modu bateko publizitatea egin daitekeela egiaztatzea. Erakundeek publizitate-agentziekin elkarlanean aritzeko bultzatutako estrategiak ere erakutsi ziren; esate baterako, Emakundek sustatzen duen komunikazio eta publizitate ez-sexistarako agentzien sarea, Begira Batzordearen lan-esparruan sortutakoa. Tailerrean Emakundeko zuzendaria den Izaskun Landaidarekin batera honako hauek hartu zuten parte: Esther Valdivia (Publicaciones Profesionales), Isabel Mastrodoménico (Agencia Publicidad y Género), Pablo Vidal (Begira Batzordea) eta Virginia Imaz Quijera (2017ko Emakunde Saria).

Azkenik, BEGIRAK hala eskatu dioten era guztietako erakundeei informatzen eta aholkuak ematen jarraitu du, beren komunikazio- eta publizitate-jarduerak egokiago egin ditzaten.



Deskargatu BEGIRA app DOAN!

BEGIRA doako aplikazioa da, Aholku-batzordearena, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko / Begira, Emakunderi atxikita.

Errazago antzemango dituzu jardunbide txarrak, eta kexak bidali ahalko dituzu publizitatean eta komunikazioan egon daitezkeen erabilera sexistei buruz.

BIDALI KEXA

ESKURAGARRI Google play

ESKURAGARRI App Store

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Begira app



BEGIRAREN hedapen- eta gizarteratze-zereginiei dagokienez, jarraitu egin da publizitate eta komunikabideen arloko berdintasunari buruzko atal zehatza kudeatzen, Emakunderen atariaren barruan. Espazio horren helburu nagusiak dira, batez ere, publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko dokumentazioa eskaintzea eta bi eremu horietan gertatzen diren erabilera sexistei buruzko kexak jasotzea. BEGIRAREN jarduera guztien berri izateko bidea erraztu nahi da herritarrentzat, eta herritarrek parte har dezaten sustatu.

Publizitatean eta komunikazioan egin daitezkeen erabilera sexistak detektatzeko eta horiei buruzko kexak bidaltzeko gailu mugikorretarako aplikazioa kudeatzen jarraitu da. Era berean, gailu mugikorretarako aplikazio hori app-arekin bidaltako kexak jaso eta sailkatzeko datu-basearen bidez kudeatu da. Begira App-ari esker publizitate eta komunikazioan balizko sexismo-kasuak detekta daitezke; horrez gain, edozein tokitatik eta nahi denean kexak idatzi eta bidal daitezke. Aplikazioa elebiduna da, doakoa eta Android zein IOSen erabilgarria, eta kode deontologikoa indarrean jartzearen ondorioz onartutako edukietara egokitu da.

Aholkularitza-lanarekin eta txosten eta gomendioak egiten jarraitu dugu, genero-ikuspegitik, publizitate- eta informazio-edukiei buruz.

Sarearen VII. topaketarekin bat etorritz. Bi gidaliburu elebidun egin eta argitaratu ditugu, inprimaki-formatuan eta formatu digitalean, publizitatearen eta komunikazioaren profesionalentzat: «*Nola egin kirolekin lotutako publizitatea genero-ikuspegitik*» eta «*Nola landu kirolari buruzko informazioak genero-ikuspegitik*».

Bestalde, «*Emakume kirolarien presentzia komunikabide eta publizitatean*» izeneko jardunaldia garatu da publizitate eta komunikazio ez-sexista izateko Kode deontologikoa eta Autorregulaziokoa ezartzeko Begira Sarearen 7. topaketaren barnean.

Kexen espedienteei buruz BEGIRAK 2018an egindako ekarpenak eta kontrastea

2018an 69 kexa-espediente eta aholkularitza-kontsulta bideratu dira. Jasotako kexetan oinarrituta, BEGIRAK 29 gomendio igorri dizkie zenbait erakunderi. Aldeek kode deontologikoa eta dekalogoak aplikatzea dute oinarri gomendio horiek. 35 eskaera bideratu dira, batez ere, Madrilgo Irudiaren Behatokira, baina baita Institut Català de les Dones-era, Emakumearen Galiziako Institutura eta Emakumearen Andaluziako Institutura ere. Bi kasutan publizitatea berehala kentzeko eskatu da (Perseus Diskoteka eta Grupo Imagine-Master Mass Media). Publizitateari buruzko 2 aholku-eskaerari erantzun zaie. Azkenik, 4 eskaera artxibatu dira hainbat arrazoigatik, baina batez ere Begiraren eskumenekoak ez diren gaiak jasotzeagatik.



Begira sarea



Kexak jarri dituzten pertsonen profila honako hau litzateke, oro har: 31 urtetik 40 urtera bitarteko emakumea; unibertsitate-ikasketak eta lanaldi osoko lanpostua dituen. Profil hori bera ageri zen aurreko urteetan ere.

Kexa motaren arabera, (publizitatea edo komunikazioa), gehiago dira publizitatearen arloko kexak komunikazioaren arlokoak baino. Publizitatearen esparruan, kexa gehienak, ustez genero-estereotipoak eta -rolak indartzen zituzten iragarkien gainean egin dira, hala nola gazte, argal eta gorputz perfektuko izatearekin lotzen den edertasun-eredu bakar bat islatu eta emakumeen gorputza gauza bihurtzen duten iragarkien gainean, eta neurri txikiago batean, emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako jarrerak edo jokabideak justifikatzearen gainean.

Komunikazioaren esparruan, batez ere, emakumeen aurkako indarkeriari garrantzia kentzearekin lotutako kexak helarazi dira.

Herritarrek hainbat bide dituzte kexak igortzeko. Zehazki, 2018an jaso ziren 77 eskaeretatik 52 gailu mugikorretarako Begira aplikazioaren bidez bidali ziren.

Herritarrek erakunde honekin erlazionatzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez: eskaera gehienak gaztelaniaz daude (67), euskaraz (8) eta bi kasutan, eskaerak bi hizkuntza ofizialetan bidali dira.

Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun-erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako «*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean*» laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua profesionalak gaitzea da, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak dirulaguntza izendunaren eta irakaskuntzaren parte-hartzearen bidez eta Emakunden praktikak egiteko erraztasuna emanez zehaztu da.

Era berean, EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean, bi online ikastarorako materialak prestatu ditugu: bata emakumeen eta gizonen arteko

berdintasunari buruzkoa, eta bestea gizonen, berdintasunari eta maskulinitasunei buruzkoa.

Lankidetzako hitzarmen bat ere egin dugu EHUrekin prestakuntza-ekintzak eta berdintasun-politikak elkarrekin sustatzeko eta, horren esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko online ikastaroaren 4 edizio egin ditugu, eta beste 4 gizonen, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko ikastaroari buruz.

Agirre Lehendakaria Center zentroarekin, prestakuntza-saio bat eman zaie Etorbizuneko liderrak prestatzeko programako ikasleei.

Halaber, Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterraren garapenean ere jardun dugu lankidetzan, ikasleentzako 14 bekaren bidez.

Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan aritu da Emakunde: 2018. urterako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk babestu ditu. Ekimen horren helburuak hauek dira: teknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeek hainbat eremutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur egungo neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.

EHUrekin elkarlanean aritzearen esparruan, Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoan parte hartu dugu eta benetako kasuak, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko jarraitzen dugu. Lan-ildo horretan, gainera, hainbat hitzalditan hartu dugu parte diskriminazioaren aurkako estrategiak diseinatzeko eta berdintasun-eskubideak aldeztuko, ikasleak kontura daitezzen zeregin garrantzitsua betetzen dutela gizarte bidezkoago bat lortzeko ahaleginean.

Estatuko berdintasun-erakundeak: Emakundeko zuzendari nagusia urriaren 18an Genero Indarkeriako Gobernuaren Ordezkaritzak antolatutako Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiaren VII. Biltzarrerara bertaratu da. Biltzarra batez ere eremu juridikoko profesionalak gogoeta egiteko eta trukatzeko gune



bat da. Profesional horiek nolabaiteko lotura daukate indarkeria mota horrekin, baina Autonomia Estatutua duten Autonomia Erkidegoetako eta Hirietako berdintasunaren eta indarkeriaren eremuan lan egiten duten beste erakunde eta entitate batzuen partaidetza ere badaukate. Erakunde horiek balioa eranstean diote, eta erakunde horien inplikaziorik gabe ezin izango litzateke lortu emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

Halaber, abenduan, Autonomia Erkidegoetako Lantaldeak deitutako saioan parte hartu dugu. Saio hori genero-indarkeriaren biktima-izaera egiaztatzen dituzten sistemak abian jartzea ahalbidetzen duten oinarriko prozedurei buruzkoa izan zen, 1/2004 Lege Organikoaren II. Tituluko II. Kapituluan aitortutako eskubideen ondorioetarako, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren 63. neurrian aurreikusitakoa garatzeko.

EBko erakundeak eta Europako programak: Genero Berdintasuneko Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarean parte hartu dugu, eta harremanak izan ditugu Eustatek Europar Batasuneko berdintasun-indizearen kalkulua errazteko. Halaber, Europar Batasunaren egitura- eta inbertsio-funtsetako aurrekontuetan genero-ikuspegia barne hartzeari buruzko konferentzia batean parte hartu dugu, Vilna-n (Lituania). Genero Berdintasunerako Europako Institutuak antolatu du (EIGE).

Europar Batasunak finantzaturako nazioarteko lankidetzaproiektuaren esparruan, hiru eguneko bisita antolatu da Tunisiako gobernuaren ordezkariatzat genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez Eusko Jaurlaritzak zer esperientzia duen ezagutzeko.

NBEko eta nazioarteko erakundeak: Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jardura hauek egin dira:

Mexikoko Gobernuarekin emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako lankidetzamemorandumaren eta Eusko Jaurlaritzak Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako esparru-akordioaren jarraipena egin dugu. Halaber, jarraipeneko eta koordinazioko bilerak egin ditugu NBE Emakumeak

erakundeko, UNFPA erakundeko eta Euskadik atzerrian dituen ordezkarietzako ordezkariekin.

Munduko Nekazaritza Foruarekin lankidetzan eta horri laguntza ematen jarraitu dugu, Familia Nekazaritzako Munduko VI. Biltzarra antolatzen lanetan, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde horrek egindako esparru-akordioaren barruan.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin elkarlanean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 62. Bilkuran (CSW62) parte hartu dugu. Nazio Batuak urtero antolatzen du New Yorkeko egoitzan, emakumezkoen munduan duten egoerari buruzko jarraipena egiteko.

CSW62ren esparruan programaturako jardura batzuetan parte hartu genuen, eta hainbat bileratan izan ginen: John Garamendi senatari demokratarekin, IknowPolitics proiektuaren arduradunekin, Nordic Forum-en ordezkariekin, Frantziako Berdintasun Kontseiluko ordezkariekin, Maltako Berdintasun Ministerioarekin eta The Global Alliance for Media and Gender (GAMAG) mugimenduko arduradunekin; halaber, alde biko bilera orokorretan izan gara, NBE Emakumeak eta UNFPAREN artean elkarlanean nola aritu aztertzeke. Horretaz gainera, goi-mailako ekitaldi batean parte hartu genuen, Programan parte hartu zuten gainerako herrialdeekin batera, indarkeriaren biktima izan diren emakume eta neskatilentzako funtsezko zerbitzuei buruz aritzeko, NBE Emakumeak eta UNFPA erakundeekin gidarizapean.

Emakunde nazioartekotzeko 2019-2020 estrategia prestatu dugu, Estrategia Basque Country tresnaren esparruan.

Euskadiren New Yorkeko ordezkarietzaren bidez, harremana izan dugu NBEren aurrean Quebecen duen Ordezkaritzako ordezkariekin.

Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat Argentinara eta Txilera bisitan joan dela eta, ekimen hauek gauzatu ditugu azken herrialde horretan: memorandum bat sinatu da Emakunderen eta Txileko Gobernuko Emakumea eta Genero Ekitatea Sailaren artean; memorandum bat sinatu da Emakunderen eta Txileko Gobernuko Presidentetzaren Fundazio Sareko Familien Fundazioaren artean, gizonak





Legebiltzarreko ordezkaritza CSW62an

berdintasunera hurbil daitezen sustatzeko; Alberto Hurtado Unibertsitateak antolatutako Emakumearen Autonomia Ekonomikoa eta Lehiakortasuna mintegian parte hartu da; eta lankidetzak akordioa egin da unibertsitate horren eta Emakunderen artean.

Saharar herriari laguntza emateko euskal sarean parte hartzen jarraitu dugu.

Emakunde 2016an Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Turingo III. Foroan parte hartu zuenetik, lankidetzan ari da DELGEN ekimenarekin; ekimen hori Nazio Batuen Garapenerako Funtsaren Latinoamerikako generoaren arloak sustatzen du (PNUD-Panama). Lankidetzak horren esparruan, honako baterako jarduerak egin dugu: beste erakunde batzuek ez ezik, PNUDK eta Emakunde ere

sustatatuko Genero-ikuspegia duten Tokiko Jardunbide Egokien sarrietan parte hartzea, zertarako eta tokiko garapen ekonomikoak modu jasangarri eta eraginkorragoan txerta dezan genero-ikuspegia lurralde-plan eta -politikak diseinatzean, ezartzean eta ebaluatzean.

Generoaren Toki Agendei buruzko IV. Goi-bilera Iberoamerikarrea ere parte hartu dugu, Cuenca hirian (Ekuador). Goi-bileran, Emakunde bere esperientzia azaldu du, genero-ikuspegia euskal instituzioetan txertatzeko eta, horrela, emakumeen ahalduz aurrera egiteko abian jarritako ekintza eta politikei dagokienez. Era berean, euskal enpresetan berdintasuneko planak eta diagnostikoak garatzeko politiken eta estrategien berri eman du. Halaber, toki- eta genero-garapen ekonomikoari buruzko trebatze-tailer batean parte hartu dugu, zeinetan Emakunde enpresetan berdintasuneko diagnostikoak eta planak gara daitezzen sustatzeko metodologiak, tresnak eta ekimenak aurkeztu dituen.

Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako eta neskeentzako oinarriko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratuan parte hartzen jarraitu dugu. Programaren helburu nagusia nazioarteko adostasuna lortzea da emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horri erantzuteko funtsezko elementu eta zerbitzuei dagokienez. Nazioarteko programan beharrezko gutxiengo estandarrek erabakitzen dira indarkeria hori pairatzen duten emakumeen eta neskeentzako beharrei kalitatezko erantzun koordinatua emateko. Programan, erantzun instituzionalaren zenbait arlo lantzen dira, hala nola poliziala, judiziala, osasuneko, gizarte-zerbitzuena, baita koordinazioko eta gobernantzeko sistemak eta mekanismoak ere.

Emakunde material horiekin proba egiteko prozesuaren buru izan da EAEn. Horretarako, hausnartzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa abiarazi du, sistema etengabe aldatzeko eta hobetzeko, indarkeria jasaten duten emakumeekiko eta neskeentzako esku-hartzean nahasitako EAEko eragileen artean. Prozesu horrek hobekuntza-puntuak hautematea eta izaera aplikatuko planak ezartzea zuen helburu, emakume horiei arreta modu koordinatuan eskaintzeko urrats



gehiago egin daitezten, betiere Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Munduko Programak barne hartzen dituen gutxieneko arreta-estandarrak kontuan hartuta.

Era berean, ariketa horrek aukera emango du ideia zehatzak identifikatzeko, zeinak indarkeriaren biktimei diren emakumeen arreta hobetzeko Erakunde arteko III. Akordioa egiteko oinarriak susta ditzaketen.

Horretarako, lantaldeak egin dira esku hartzeko hainbat esparrutan (osasuna, polizia, justizia, gizarte-zerbitzuak eta koordinazioa eta gobernantza) Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioa erakundeekin. Prozesuak bere barnean txertatu

nahi ditu erakunde bakoitzeko ordezkari bat eta, horrez gain, arreta-sistemako postuetan zuzenean inplikaturako langileak; halaber, administrazioak zerbitzuak emateko kontratatutako enpresetako langileak txertatzea eskatzen zen.

Lan-bilera horien ondoriozko dokumentazio guztia bildu eta antolatu da, gero lan-prozesuan parte hartu duten guztien zerbitzura jartzeko. Informazio hori eskuragarri dago hobekuntza-programa kudeatzeko sortutako webgunean: www.emakundeonu.eu

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ematen zaien arretaren inguruko kalitatearen nazioarteko estandarrei buruzko NBEren programaren esparruan, 2018an, gogoeta egiteko eta ondorioak azaltzeko 3 jardunaldi egin dira polizia-jarduketaren eremuei buruz (63 parte-hartzaile), gizarte-zerbitzuei buruz (70 parte-hartzaile) eta osasunari buruz (88 parte-hartzaile).

Programaren garapenari laguntzeko, Nazio Batuen Biztanleria Funtzari dirulaguntza izenduna eman zaio; izan ere, Funtz horrek bideratzen du proiektua, NBE Emakumeak erakundearekin batera.

Hirugarren sektoreko erakundeak: Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan aritu da jarduketa batzuetan, adibidez:

- Zinema Ikusezineko Jaialdiaren seigarren edizioarekiko (2018) lankidetzak, emakume errealizadore onenaren sariari babesa emanez;
- Bertsozale Elkartearekiko lankidetzak, bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzeko eta prestakuntza-jardueren bitartez emakume bertsolarien ahaluntzea babesteko;
- Argiri Emakume Elkartearekiko lankidetzak, Irungo Alarde Mistoaren elkarteari babesa emateko;



Onu Programa indarkeriaren biktimei ezinbesteko zerbitzuei buruzkoa



– Aisialdiko eta Kulturako Azkuna Zentroarekiko lankidetzak, arteko eta kulturako hainbat proiektu ikuspegi feministatik gauzatzeko.

2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legeriak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira.

Emakundek 1991n ekin zion ibilbideari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA EBALUATZEA

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren garapen-maila ezagutu dezakegu, gauzatzearen ikuspegitik. Ikuspegi horren mugak gorabehera, intereseko panoramika bat eskain dezake, oinarritzko kontu batzuen inguruan, besteak beste, aurrerapena berdintasun-politiken plangintzan, berdintasun-politikek beren erakundeetan sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena edo administrazio publikoek berdintasuna sustatzeko bideratutako aurrekontuak.

Jarraipen hori EAEko erakundeek aplikazio informatiko baten bidez betetako galdetegi esker lortutako informazioan oinarritzen da. 2017an egindako jarduerari buruzko informazioa batu da 2018an. Guztira, 130 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren (2017) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako erakunde autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2017. urteari buruz.
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioa (2014-2017).

2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakundea osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du – bereziki dirulaguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, horren jarraipena egiten eta eguneratzen. Halaber, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du, erakundearen jardura esparruaren berezko gaietan.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:



- Lankidetzeta-hitzarmenak egitea hiru foru-aldundiekin, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko «Beldur Barik» erakunde arteko kanpaina garatzeko eta finantzatzen laguntzeko.
- Generoaren araberrako eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailtako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko lankidetzeta-erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan aholkularitza tekniko emateko aholkularitza-erakundeen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketaren bidez ematen dituen dirulaguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jarduera-aldaketak, errekurtsoen ebazpena, erroreen zuzenketak, luzapenak etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Dirulaguntza eta laguntza horiek izan daitezke:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
 - udalerrientzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,



“Beldur Barik” kanpainaren programazioa

- enpresa eta erakunde pribatuentzat, homologatutako kontsultoreak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
- ikerlanak egiteko,
- ikerlanak argitaratzeko (VI. lehiaketa)
- «Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterra» egiteko.
- Dirulaguntza izendunak prestatu eta izapidetu dira. Hauek dira erakunde onuradunak:
 - Nazio Batuen biztanleria-funtsa (UNFPA), Indarkeria jasaten duten Emakume eta Neskatoentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Baterako Programa Globala garatzen laguntzeko.



- «Maite Albiz» Emakumeen Dokumentazio Zentroa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, 2018-2019 ikasturtean «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online» emateko.
- Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte, udalerrri txikienei berdintasun-politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzen laguntzeko (Berdinbidean); berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea garatzeko (Berdinsarea); eta Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluan Eudel zuzendari izatea babesteko, eta zuzendari izateak eragiten dituen gastuei erantzuteko.
- Gazteen Euskal Kontseilua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aholkularitza emateko.
- Argiri Emakume Elkarte, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
- Askabide Elkarte, sexu-esplotaziorako xedez egindako gizaki-salerosketaren biktima izan diren emakumeentzako arreta-programa kudeatzeko.
- Congregación Oblatas del Santísimo Redentor lagunartea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan diren emakumeak hautemateko eta haiei arreta emateko programa kudeatzeko.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioa, «Haurduntza subrogatua edo alokairuko sabelak? Emakumeen gorputzen merkantilizazioaren mugak» ikastaroa egiteko.
- Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GGKE, «Film Sozialak» Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzeko.
- Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA enpresa, arte eta kulturako «Ezagutza Feministak Sarean» proiektua egiteko eta gordailu digitala martxan jartzeko eta garatzeko.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, emakumeen parte-hartzea sustatzeko bertsolaritzan, genero-ikuspegia ezartzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- Txosten juridikoak egitea Emakundeko Zuzendaritzak, beste administrazio publiko batzuek eta partikularrek eskatuta, emakumeen eta gizonen berdintasunaren hainbat alderdiri buruz: berdintasunaren arloan prestatzeko baldintzak, lanpostuen zerrendan sartu behar direnak, indarkeriari buruzko udal-protokoloak, berdintasun-klausulak sartzea.
- «2018ko Emakunde Saria»ren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Herritarrek, hainbat erakundek eta Emakundeko langileek hainbat gairi buruz egindako galderari erantzutea eta horiek bideratzea: laguntzen deialdiak eta esleipenak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeria, erakunde laguntzaileak eta gizarte-zehapenak aitortzea, Emakunderen kontsulta-organoak antolatzea eta atxikitzea, galdetegiaren sexuaren aldagaia txertatzea, hizkuntza inklusiboa, generoaren arabera eraginaren alde aurreko ebaluazioa, etab.
- Etxeko zerbitzurako langileen araudiari buruzko informazio-liburuxka eguneratzea.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeari laguntzeko taldean parte hartzea.
- Erakundearen administrazio-egintza guztien tramitazio elektronikoa egitea.



2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzeko, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azken urteetan.

Zeregin horrekin lotuta, nabarmentzekoa da HAEERekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana 2008-2018 aldirako Berdintasunean oinarritutako Prestakuntzaren Zeharkako Planaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. HAEERekin elkarlanean aritu gara, alde batetik, berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntza diseinatzeko; horretarako, prestakuntza-premia berriak identifikatu ditugu eta ikastaro berriak proposatu ditugu; eta, bestetik, «*Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko prestakuntza-ikastaroa*» ematen (hiru edizio).

Bestalde, aholkuak eman dizkiegu hala eskatu duten ikastetxei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, baita enpresei, emakume elkartei, profesionalen elkartei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeko eta antolatzeko buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeko buruz.

Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira, haiek antola ditzaten eta parte har dezaten. Bi helburu dituzte:

- Zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- Berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

Otsailaren 22an, «*Prestakuntza gizarte-sareetan*» izeneko prestakuntza-saioa egin zen Emakundeko langileentzat. Saio horren helburua izan zen ezagutzea gizarte-sareek baliabide gisa zer aukera ematen dizkieten Emakundeko langileei. Saioak lau ordu iraun zuen eta marketin digitaleko eta gizarte-sareetako prestakuntzarako Xabier Pagolak eman zuen oso-osorik.

Aipatutako barne-jarduerak alde batera utzita, Emakundeko langileek interesekoak diren prestakuntza-ekimenetan parte hartzen dute, bai HAEERen Prestakuntza Orokorreko Planaren esparruan, bai Emakundek zuzenean antolatutako jardueretan. Aurrerago zehaztuko dira, kanpo-prestakuntzari eta gure erkidegoko, estatuko edo beste autonomia-erkidego batzuetako beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-jarduerari buruzko puntuak.

Kanpo-prestakuntza

Barruko prestakuntza-jardueren antolamendura nahiz beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzea bideratuta dago.

JABETUZ programa, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalen zuzendua

2015. urtean, Emakundek «*JABETUZ*» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako online emandako lehen oinarritzko prestakuntza-ikastaroa da.



Programa horren bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakunde arteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

Online oinarrizko prestakuntza-ikastaroak 85 orduko iraupena du eta ikastaroaren helburu nagusia Erakunde arteko II. Akordioaren printzipio orokorretako bat indartzera bideratuta dago; printzipio hori emakumeen ahalduntzea da.

2018. urtean, oinarrizko Jabetuzen bi ikastaro eman dira: 7. edizioa martxoan hasi zen eta 8. edizioa irailean. 2017. urtean bezala, aurten ere 100 pertsonak parte hartu dute edizio bakoitzean. Pertsona horiek aurreko urteetako erakundeetakoak dira. Dena den, genero-indarkeriako ofiziozko txandaren zerrendako letraduen ordezkariak igo egin da.

Bestalde, II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharreran aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharreri dagokienez ere. Izan ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zuten, «Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Aniztasun funtzionala» gaietan, esaterako.

Ildo horretan, 2016an, Emakundek Jabetuz online prestakuntza-ikastaro aurreratua diseinatu eta abiarazi zuen; programak hiru unitate didaktiko eta 35



Jabetuz formakuntza

orduko iraupena du, eta ezagutza- eta sakontze-maila handiagoa behar duten gai batzuen inguruan aurrera egiten jarraitzea du helburu.

Horrela, bi lehen unitateetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabei buruzko araudia aztertzen da, ikuspegi hirukoitz batean oinarrituta: giza eskubideak, haurtzarora eta generoa. Era berean, seme-alabek jasaten duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, indarkeria-mota horren zuzeneko biktimak direnez. Eta, amaitzeko, azken ikasgaietan emakumeen aurkako indarkeriaren barnean, aniztasun funtzionala aztertzen da, zehazki, desgaitasun fisikoa duten emakumeen egoera eta premiak. Ikastaroa egin ahal izateko ezinbestekoa da aurrez oinarrizko online prestakuntza-ikastaroa egin izana.



2018. urtean, Emakundek igo egin du aniztasun funtzionalari buruzko ikastaro aurreratuaren gai kopurua. Lehen, II. moduluan, aniztasun funtzionala orokorrean lantzen zen eta desgaitasun fisikoa eta organikoa aztertzen ziren. Aurten gaiak zabaldu egin dira honako hauei dagokienez: gaixotasun mentala, entzuteko desgaitasuna, adimen-desgaitasuna eta/edo garapen-desgaitasuna eta ikusteko desgaitasuna. Ikastaroa urrian hasi zen eta abenduaren 9an bukatu zen.

EHUko udako ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, uztailaren 12an eta 13an, «*Haurduntza subrogatua eta emakumeen gorputzen merkantilizazioaren mugak*» ikastaroa antolatu zuen. Ikastaro horren helburuak honako hauek izan ziren: praktika horren inpaktu soziala eta ondorio etikoak eta juridikoak aztertzea giza eskubideen ikuspegitik; nazioarteko, Europako, espainiar estatuko eta Euskadiko lege-esparrua ezagutzea; azaldutako iritzi desberdinak eta iritzi horiek dituzten gizarte-taldeak edo kolektiboak ezagutzea.

Honako ikastaro hauek eman ziren: «*Emakumeen gorputzen merkantilizazioaren mugak*», Amelia Valcárcel; «*Emakundek egindako "Haurdunaldi subrogatua ala alokairuzko sabelak?" ikerlanaren aurkezpena*», Ainara Canto Combarro eta Aida Ortega Sánchez; «*La regulación jurídica de la maternidad subrogada*», Itziar Alkorta Idiákez; «*La gestión por sustitución desde una perspectiva jurídica: Algunas reflexiones sobre el conflicto entre deseos y derechos*», Octavio Salazar Benítez; «*Las razones del no a la gestación subrogada*», Alicia Miyares Fernández; «*Gestación subrogada: aportaciones para el debate*», Beatriz San Román.

Orobat, «*Diálogo y reflexiones desde el feminismo*» izeneko mahai-ingurua garatu zen, honako partaide hauekin: Pikara Magazine aldizkariaren koordinatzaile June Fernández Casete (moderatzailea), Josebe Iturrioz Lopez, Ianire de la Calva Ibarrondo eta Josefina Jimenez Betancor.

Beste prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera batzuk

Era berean, Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu:

- Emakumeen osasunaren nazioarteko eguna dela-eta emandako hitzaldia: «*Depresiotik suspertzea: generoa, gorputza eta aldaketa-gaitasuna*». Maiatzaren 28an eman zen Ibaiondo Udaltegitiko «*La Bolsa*» eraikinean, Bilboko Pilota kaleko 10. zenbakian. EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailean eta AFIT-Antropologia Feministako Ikerketa Taldean ikertzaile den María Zapata Hídalgo eman zuen.



Udako ikastaroak



- Laneko Ikuskatzailezarekin elkarlanean arituz antolatutako «*Soldata-arrakalarik gabeko etorkizuna? Esku hartzeko tresnak*» jardunaldia. Maiatzaren 28an eta 29an egin zen Ibaiondo Udaltzako «*La Bolsa*» eraikinean, Bilboko Pilota kaleko 10. zenbakian. Jardunaldiaren aurkezleak Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitia, eta Lan Ikuskaritzako zuzendariorde Iciar González Carrasco izan ziren, eta hitzaldi hauek eman ziren:

- «*Sexuan oinarritutako soldata-diskriminazioa. Diskriminazio sistemikoa*». Vigoko Unibertsitatean Lana eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidean katedraduna den Jaime Cabeza Pereirok eman zuen.

- «*Soldata-arrakalarik gabeko etorkizunerantz*». Pompeu Fabra Unibertsitateko Lan Zuzenbideko irakasle, Maria Aurèlia Capmany Fundazioaren zuzendari eta Kataluniako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren (CTESC) kontseilari Aida Ruiz Francok eman zuen.

- «*Generoan oinarritutako soldata-arrakalaren autodiagnostikoa egiteko tresnaren aurkezpena*». Emakumearen Institutuaren eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Aukera Berdintasunerako Saileko Enpresan Berdintasunerako eta Negoziazio Kolektiborako Saileko zuzendariondoko Antonio López Serranok eman zuen.

Jardunaldiaren amaieran tailer praktikoko bat egin zen generoaren araberako soldata-arrakala detektatzeko tresnak aplikatzeko. Tailerra ENRED Consultoría SL enpresako zuzendari/bazkide Juan Fernández Vaquerok eman zuen.

- «*Genero estereotiporik gabeko publizitatea: sorkuntzarako erronka*» jardunaldia ekainaren 1ean izan zen Euskalduna Jauregiko A4 aretoan (helbidea: Abandoibarra etorbidea 4, Bilbo). Jardunaldiaren aurkezlea Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitia izan zen, eta hitzaldi hauek eman ziren:

- «*Aportamos creatividad desde equipos uniformes? Importancia de la presencia de las mujeres*». CEO Publicaciones Profesionales SLko WomenCEO lehendakariorde Esther Valdiviak eman zuen.

- «*Realidad creada y realidad real: los contenidos publicitarios, la realidad que muestran, su potencial transformador*». Comunicación y Género agentziaren zuzendari Isabel Mastrodoménicok eman zuen.

- «*Cambiar la realidad con acciones colaborativas: El Código deontológico y el decálogo de publicidad. Representantes de Begira*». Begira batzordeko kide eta Euskal Herriko Unibertsitateko publizista eta doktore Pablo Vidal Vanaclochak eman zuen.

Virginia Imaz Quijera pailazoak ateratako clown-ondorioek eman zioten amaiera jardunaldiari.

- Emakumeen elkarteei bideratutako jardunaldia, «*Ahizpatasuna, kolektiboki eta generoaren ikuspuntutik ahalduz bide gisa*» izenburua duena. Ekainaren 13an egin zen Europa Jauregian (Gasteiz Hiribidea 85, Gasteiz). Jardunaldia Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitiak eta FEVI eta CONFAVeko (Arabako Aholku-azpibatzailea) presidente Maite Bilbao Otegik aurkeztu zuten. «*Alianzas y redes entre mujeres, la sororidad: vías para el empoderamiento colectivo y de género*» mahai-ingurua egin zen. Moderatzailea Nuria Sáez de Jáuregui izan zen, ASAMMA elkarte, Arabako Azpibatzaile Aholku-emailea, eta honako hauek hartu zuten parte: Soziologiako katedradun eta feminista Marina Subirats i Martori eta editore eta feminista Pilar Careaga Castrillo. Jardunaldia amaitzeko, «*Construyendo redes y alianzas entre nosotras, Construyendo la SORORIDAD*» tailerra egin zen.

- «*Enpresetan sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena dagoenean esku-hartzea. Erronkak eta proposamenak*» izeneko jardunaldia egin zen ekainaren



21etik 28ra bitarte Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusiko ekitaldi-aretoan (helbidea: Donostia kalea 1, Gasteiz). Jardunaldiaren aurkezlea Emakundeko idazkari nagusi Zuriñe Elordi Romero izan zen, eta hitzaldi hauek eman ziren:

- «*Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurreko protokoloak egitea enpresetan. Testuingurua, metodologia eta proposamena Kataluniako lan-harremanetan*». Hitzaldia Carmen Mañas Rodríguez andreak eman zuen. Aukera Berdintasunerako Arloko teknikaria da (Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia, Laneko, Gizarte Gaietako eta Familien Kontseilaritza) eta aditua generoan eta lan-arloan eta genero-zeharkakotasunaren arduraduna Kontseilaritza.

- «*Lan-munduko eta antolakuntza-kulturako sexu-jazarpenaren edo sexuagatiko jazarpenaren testuingurua*» jardunaldia Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaile Telma Vega Felguerosok eman zuen.

- «*Pautas para la puesta en marcha de procedimientos de investigación e intervención en la aplicación de protocolos contra el acoso sexual y por razón de sexo: trabajo sobre caso*» hitzaldia psikologo eta psikoterapeuta Norma Vázquez Garcíaek eman zuen. Horrez gain, aditua da sexu-indarkeriaren eremuan, bai esku-hartzeetan, bai laguntza teknikoan eta irakaskuntzan, baita aholkularia ere, lan-eremuko eta eremu horretatik kanpoko sexu-jazarpeneko kasuen maneian, eta Sortzen Consultoriaren zuzendaria ere bada.

- «*Las acciones legales en la aplicación de los protocolos de acoso sexual y por razón de sexo*» hitzaldia Abella Legal bufeteko abokatu eta kide izateaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunerako kontsultore den Isabel Abella Ruiz de Mendozak eman zuen.

Jardunaldia amaitzeko, «*Intercambio de experiencias, identificación de retos y buenas prácticas en nuestro entorno*» izeneko lana egin zen taldetan. Lan horretan homologatutako kontsultoreek eta erakunde laguntzaileek hartu zuten parte.

- Berdintasunerako XV. Foroan parte hartu zuten erakundeen topaketa egin zen urriaren 9an Bilboko Arenal Pasealekuan. Topaketa horren titulua «*Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna*» da. Topaketa 2018ko Foroan parte hartu zuten erakundeei zuzendu zitzairen eta Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak inauguratu zuen.
- Berdintasuna enpresa eta erakunde txikietan sartzeko Metodologia aurkezteko jardunaldiak (Donostian, ekainaren 26an; Gasteizen, ekainaren 27an eta Bilbon, ekainaren 29an). Jardunaldiak enpresa eta erakunde pribatuei eta interesa



«Ahizpatasuna ahalduztzeko bide gisa» jardunaldia



erakutsi zuten beste eragile batzuei zuzendu zitzaizkien, eta berrikuntza sozialaren eta berdintasunaren arloko kontsultore Silvia Murielek hartu zuen parte.

- Euskaliten «*Berdintasuna Kudeaketa Aurreratuan: tresnak eta esperientziak (II)*» biltzarrean parte hartu zen. Biltzarra Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXIV. Europako Astearen esparruan antolatu zen eta urriaren 22an egin zen EHUko Bizkaia Aretoan, Bilboko Abandoibarra etorbidearen 4. zenbakian. Honako jarduera hauek egin ziren:

- Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak eta Euskaliteko zuzendari Fernando Sierra Hernándezek «*Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen eta EUSKALIT - Kudeaketa Aurreratua fundazioaren arteko lankidetzeta-hitzarmena*» aurkeztu zuten.

- Silvia Muriel Gómezek (Berrikuntza Sozialeko eta antolaketako aholkularia Ncuentran) eta Julia de León Fernándezek (Euskaliteko koordinazio eta Kohesio arduraduna) «*Kudeaketa aurreratuan berdintasuna lantzeko tresnak*» hitzaldia eman zuten.

- «*Berdintasun esperientziak kudeaketa aurreratuan*» solasaldia.

- «*Emakume kirolarien presentzia komunikabideetan eta publizitatean*» jardunaldia Publizitate eta komunikazio ez sexistarako Deontologiako eta Autorregulazioko Kodea ezartzeko Begira Sarearen 7. topaketaren barnean. Azaroaren 29an egin zen Bizkaia Aretoan, Bilboko Abandoibarra etorbidearen 3. zenbakian. Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak eta Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoko eta Kiroleko zuzendari Jon Redondo Lertxundik aurkeztu zuten jardunaldia. Esku-hartzeak jarraian zehaztuko diren hauek dira:

- «*Emakume kirolarien presentzia komunikabide eta publizitatean*» hitzaldia. TVEko kirol-komentarista Paloma Del Río Cañadasek aurkeztu zuen.

- «*Publizitate eta komunikazio ez-sexista izateko Kode Deontologikoa eta Autorregulaziokoa ezartzeko Begira Sarearen*» aurkezpena egin zuten Emakundeko idazkari nagusi eta Begira Batzordeko lehendakari Zuriñe Elordi Romerok.

- Kualitate Lantaldea enpresako Itziar Cámara Camposek eta Diego Fernández Ortizek «*Kirol-arloko edukiak genero-ikuspegitik lantzeko tresnen*» aurkezpena egin zuten.

- «*Eusko Jaurlaritzan burututako aurreko esperientzien aurkezpena: Emakumeen kirolaren prentsako presentziaren eta trataeraren azterketa kuantitatibo eta kualitatiborako jardunbide egokiak*» Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako teknikari Dorleta Ugalde Usandizagak egin zuen.

- «*Emakume kirolariak komunikabideetan eta publizitatean agertzearen garrantziari*» buruzko solasaldia Urko Aristi Urdanpilletak moderatu zuen eta honako pertsona hauek parte hartu zuten: Chantal Reyes Calabia (Mundo Deportivo), Maite Azpiroz Razkin (Lacturale), Olatz Legarza Albizuri (Basqueteam), Olga Jiménez Sevilla (El Correo) eta Livia Claudia López Gutiérrez (Araski).

- «*Genero-arrakala soldatetan eta pentsioetan; lan- eta zainketa-denborak*» jardunaldia Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXIV. Europako Astearen esparruan antolatu zen eta urriaren 31n egin zen Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilboko Maria Diaz Harokoaren kaleko 3. zenbakian. Jardunaldiaren aurkezlea Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitia izan zen, eta hitzaldi hauek eman zire:

- «*Soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala aztertzen*» Olga Fotinopulosek (UPV/EHUko irakasle titularrak Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbidean) eta Rosa Rodríguez Romerok eman zuten (graduatu UPV/EHUko Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan eta Enpresa Zuzenbidearen Saileko ikertzailea UPV/EHU).



- «Lan- eta zainketa-denboraren banaketa, generoaren arabera» Matxalen Legarretak (irakaslea UPV/EHUko 2. Soziologia Sailean) eman zuen.

Jardunaldi amaieran, aintzatespen-plakak eman zitzaizkien honako erakunde kolaboratzaile hauei:

1. BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK, S.A.
2. ASOCIACIONES DE PADRES DE AFECTADOS DE AUTISMO Y OTROS TRASTORNOS
3. EKIA INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL
4. ASOCIACIÓN VIZCAÍNA DE AYUDA A PERSONAS AFECTADAS DE PARÁLISIS CEREBRAL
5. EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L.
6. HEGALA NORTE
7. AGENCIA VASCA DEL AGUA
8. CENTRO DE ESTUDIOS INATECS S.L.
9. GISMA ASESORAMIENTO S.L.U.
10. CENTRO DE ESTUDIOS JURITECNIA S.L.
11. ZUBELDIA FORMACIÓN-PRESTAKUNTZA S.L.
12. CENTRO DE ENSEÑANZA SAN ROQUE S.L.
13. SERVICENTRIC S.L

• Lan Ikuskaritzarekin eta Osalanekin lankidetzan «Laneko osasuna eta genero-ikuspegia: Arrisku muskulu eskeletiko eta sexu-jazarpenaren nahiz sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziorako hurbilketa» jardunaldia antolatu zen. Azaroaren 30ean egin zen Euskalduna Jauregiko E aretoan (Abandoibarra etorbidea 4, Bilbo). Jardunaldiaren aurkezpenean Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitia, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari Alberto Alonso Martín, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuorde Jon Azkue Manterola egon ziren. Hona hemen hitzaldiak:

- «Emakumeak, generoa eta laneko osasuna», Amparo Garrigues Giménez, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedradun onetsia Castellóko Jaime I.a Unibertsitatean, eta Valentziako Erkidegoko Lan Harremanen eta Negoziazio Kolektiboaren Kontseiluko presidentea.

- Solasaldia.



“Genero-arrakala soldatetan eta pentsioetan” jardunaldia

- «Arrisku ergonomikoen prebentzioa genero-ikuspegitik abiatuta», Sofia Vega Martínez, CNCTren Ergonomia eta Psikosoziologia Unitate Teknikoko Prebentzio Arloko goi-teknikaria, Bartzelonako Laneko Segurtasunerako eta Higienarako Institutu Nazionala (INSHT)
- «Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, arriskuen prebentziotik begiratuta», Carmen Ladona, Arrisku Psikosozialen Prebentzio Arloko koordinatzailea. Generalitat de Catalunya.



- «Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurreko prebentziozko jarraibideak», Generoko Taldea, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- «JABETUZ: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREKO BEGIRADA BATERATUA I. JARDUNALDIA» azaroan egin zen emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzat. Urrats

bat gehiago egin nahi izan da prestakuntza-estrategian eta topaketa pertsonalerako gune honekin osatu nahi izan da programa. Gune hori ikasleei zuzenduta dago, baina baita JABETUZen ardatz nagusiari, hots, emakumeen ahalduz buruzko gogoeta sakonagoa egin nahi duten beste profesional batzuei ere. Ahalduz esku hartzeko metodologia eta muga gisa, indarkeriatik ateratzeko egiten ari diren ibilbideko hainbat unetan biktima diren emakumeekin harremanetan jartzen diren ikuspegia zabalduko duten alderdi kontzeptualen, juridikoen eta praktikoen inguruan etengabe hobetzeko ildoan aurrera egitea ahalbidetuko duen berrikuspene eginez.

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arretaren kalitatearen nazioarteko estandarrei buruz NBERen programaren esparruan hainbat jardunaldi antolatu ditugu. 2018an, hausnartzeko eta ondorioak azaltzeko 3 jardunaldi antolatu ditugu, poliziaren (63 parte-hartzaile), gizarte-zerbitzuen (70 parte-hartzaile) eta osasunaren (88 parte-hartzaile) jarduketa-eremuei buruz.

Emakundeko langileek eskolak eman dituzte ikastaro hauetan:

- «Emakumeen kontrako Indarkerian Esku hartzeko Masterra», Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Masterra», Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- «Emakumeek eta gizonen proiektuetan izan behar duten berdintasunean oinarritzen den prestakuntzari buruzko oinarritzko ikastaroa»ren 3 edizio, HAEK antolatua, eta EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileei zuzenduta.
- UPV/EHUko udako ikastaroa: Haurduntza subrogatua edo alokairuko sabelak? Emakumeen gorputzen merkantilizazioaren mugak.
- Begira Batzordea Leioako UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleen artean hedatzeko jardunaldia.



Jornada JABETUZ



2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, baita berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan-ildo honetan, zenbait jarduera sartzen dira, besteak beste: erakundearen beraren argitalpenak eta ikerketan genero-ikuspegia sartzea sustatzeko beken deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnei.

Azterlanak

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2018

«Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak» izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren lege-xedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonek gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa.

Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoaren eskura



Nazioarteko kalitate-estandarrei buruzko jardunaldia

jartzea, eta horiek ezabatzerantz bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza-arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Txosten honek informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena. Horretarako, datu kuantitatibo ofizialak eskaintzen dituzten informazio-iturri nagusiak hartu dira kontuan, Euskal Estatistika Erakundearen



(EUSTAT) eta beste estatistika-erakunde batzuen (INE eta Eurostat, batez ere) estatistikak erabiliz. Era berean, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailletako, Estatuko Ministerioetako eta Emakundeko informazioa bildu da.

Txostenak eta estatistikak:

1. Demografia-azterketa
2. Hezkuntza
3. Lana
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna
6. Partaidetza
7. Emakumeen aurkako indarkeria

Informes y estadísticas

Emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioari buruzko txostenak egin ditugu: «EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoaren azterketa eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak» txostena eta emakumeen aurkako indarkerien biktimei zuzendutako programen eta zerbitzuen irismenari buruzko txostena. «EAEen indarkeriaren biktimei 2017an eman zaien arretaren irismenari buruzko datuak. INFORMAZIOAREN AZTERKETA».

Informazio Sistemen Taldearen esparruan, Baliabideen Mapa egin dugu: «Indarkeria pairatu duten emakumeak laguntzeko EAEen dauden zerbitzuen 2018ko zerrenda». Mapa hori oinarri gisa erabiliko da Baliabide Mapa interaktiboa egiteko.

Txosten guztiak Emakunderen webgunean argitaratu ditugu.

Era berean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika-datuak hilerok argitaratzen ditugu webgunean.

Ikerlanetarako beka

Ikerlanak egiteko 2018ko beken deialdia 2017ko azaroan argitaratu zen. Beka bakoitzaren zenbateko ekonomikoa (23.333 euro) ezarri zen, baita iraupena (10 hilabete) eta deitutako hiru beketako bakoitzaren ikerketa-helburua ere:

- **1. motako beka:** gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea;
- **2. motako beka:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzean eta segurtasunean; eta
- **3. motako beka:** erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduntze politikoa, ekonomikoa eta soziala eta lidergoa mesedetzeko eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen laguntzeko.

1. motako bekan 15 eskaera aurkeztu ziren; 2. motako bekan, 13; eta 3. motako bekan, 21. Eskabide guztien zenbaketatik, deialdian 94 pertsonak parte hartu dute: % 85 emakumeak dira eta % 15 gizonak. Balioespenak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru beka esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 8 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:



1. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	TITULUA	ZENBATEKOA
Taldea: - Leire Gartzia Fernández (Koordinatzailea)	Generoaren gizarte-balioa monetizatzea erakundeetan: Aztertze eta esku hartze proposamen integral bat.	23.333 €

2. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	TITULUA	ZENBATEKOA
Taldea: - Nerea Azkona Ramos (Koordinatzailea)	Dibertsitate funtzionala duten emakume gazteek Euskadin bizi duten lan-egoerari buruzko diagnostikoa.	23.333 €

3. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	TITULUA	ZENBATEKOA
aldea: - Nastassja Cipriani (Koordinatzailea)	Emakumeen bazterketa matematikaren eta fisikaren esparruetan iraurazten edo aldatzen laguntzen duten fenomenoei buruzko azterketa.	23.333 €

2017ko beken deialdiari dagokionez, beka mota guztiak 2018an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza. Gainera, 2016. urteko bi beken prestakuntzari buruzko emaitza aurkeztu zen 2018an; urtarrilean, «*Polizien atxilotetean emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoan bizitako esperientzia*» ikerlana aurkeztu zen hedabideetan. Ikerlan hori Lohitzune Zuloaga Lojo, Estibaliz de Miguel Calvo eta Miren Ortubay Fuentes egileek osatutako ikerketa-taldea egin zuen; eta, maiatzean, Tania Martínez Portugal ikertzaileak egindako «*Euskadin indarkeria sexistari buruzko imajinarioak eraldatzea. Emakume aktibisten narratibak*» ikerlana aurkeztu zen hedabideetan. Bi ikerlanak Emakunderen web-orrian argitaratu ditugu hedatzeko.

Argitalpenen lehiaketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehiaketaren lehenengo deialdia sortu zen; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi dira. Helburu horrekin, 2018ko maiatzean, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko V. lehiaketa ebatzi zen (2017koa); 7 hautagai izan ziren, eta, hautagaien balioespenaren ondoriozko puntuazioa ikusi ondoren, Hautaketa Batzordeak erabaki zuen Maitane Picaza Gorrochategui andreak aurkeztutako hautagaia saritzea ikerketa-lan gisa Berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko V. Lehiaketan.

2018ko urrian, «*Espacios propios para las mujeres y procesos de empoderamiento: la Red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia*» izeneko ikerlan saritua aurkeztu zen hedabideetan. Eta Emakunderen web-orrira igo zen hedatzeko eta argitaratzeko.

Bestalde, Emakundeko zuzendariaren 2018ko urriaren 1eko ebazpenaren bitartez, 2018an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko VI. lehiaketarako deia egin eta arautu zen. Lanok baldintza



hauexek bete behar dituzte: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jarrera diferentzialaren eta bizitzaren esparru guztietako genero-harremanen inguruko ezagutza hobetu, desberdintasunak sortzen dituzten kausak hobeto ezagutzen lagundu, eta berdintasun-politiken jardunbide egoki bihurtu daitezkeen ikerlanen emaitzak jakinarazi. VI. lehiaketaren ebazpena hurrengo ekitaldian zehar garatu eta egingo da.

Argitalpenak

En el año 2018 se han llevado a cabo las siguientes publicaciones:

Txostenak:

41. zk.: «*Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea*»

600 ale paperean, bertsio elebiduna: euskaraz eta gaztelaniaz.

Bertsio elektronikoko elebiduna dago Emakunderen web-orrian.

Lehiaketaren saria:

3. zk.: «*Espacios propios para las mujeres y procesos de empoderamiento: La Red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia*». Maitane Pikaza Gorrotxategi.

Bertsio elektronikoko elebiduna dago Emakunderen web-orrian.

Beste dokumentu batzuk:

«*EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren*» argitalpena

1.500 ale paperean, bertsio elebiduna: euskaraz eta gaztelaniaz.

Bertsio elektronikoko elebiduna dago Emakunderen web-orrian.

«*EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren*» laburpena

1.500 ale paperean, bertsio elebiduna: euskaraz eta gaztelaniaz.

Bertsio elektronikoko elebiduna dago Emakunderen web-orrian.

«*Genero-berdintasunaren indizea*» katalogoa

1.500 ale paperean, bertsio elebiduna: euskaraz eta gaztelaniaz.

Bertsio elektronikoko elebiduna dago Emakunderen web-orrian.

Dokumentazio Zentroa

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanekin jarraitu du, baita Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta eskaintzetik eratorritako lanekin ere:

- Funts bibliografikoak eta bideografikoak erosi, katalogatu eta indexatzea.
- Aldizkariaren harpidetzak kontrolatzea eta horietako artikulak hustea.



V. Argitalpenen lehiaketa




- Informazio-eskaerei erantzutea.
- Bibliografiari buruzko aholkularitza eta bibliografia- eta bideografia-zerrendak «nahierara» egitea.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatzea.
- Liburuak eta bideoak mailegatzea.

Zentroaren ohiko kudeaketa- eta mantentze-jarduerari dagokionez, 2018an zehar 200 dokumentu bibliografiko eta bideografiko inguru jaso dira eta 827 erreferentzia dokumental berri gehitu dira bibliotekako datu-basera: % 45 monografiak dira eta % 35 baino gehiago artikulua, dokumentuak... 2018. urtearen amaieran, Emakundeko Dokumentazio Zentroaren funts dokumentalean 25100 erreferentzia dokumental zeuden.


Euskarri elektronikoak gero eta protagonismo handiagoa du, eta monografiaren erdia baino gehiago PDFak dira. Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 15 euskarri digitalean (DVD) dagoela –85 bideograbazio–. Era berean, Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko, baina gero eta gutxiago.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, hilean behin «*Berrikuntzen buletinak*» prestatzen dira. Horiek hala eskatzen duten Dokumentazio Zentroein, Erakundeko teknikariei, Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun Unitateei eta azken bost urteetan eskaeraren bat egin duten dokumentazio-zentroko erabiltzaileei banatzen zaizkie, posta elektronikoz bidez.

Herritarrentzako arreta- eta aholkularitza-zerbitzuei dagokienez, kanpoko 177 informazio-eskaerari erantzun zaie. Horietatik % 85 (150 kontsulta) EAEkoak dira, % 13 (23) beste autonomia-erkidego batzuetakoak eta % 2 (4) atzerrikoak.



Berdintasunerako VII. Plana



41. Txostena

Posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bidea (149 kontsulta 2018an), aurreko urteetako kopuru bera. 2017. urtean, % 81ek erabili zuten bide hori, eta ia (2018) % 84k. Era berean, proportzioak berdina dira zentrori pertsonalki joaten direnen aurreko kontsulten kopuruak (25 izan ziren 2016an eta 19, berriz, 2018an), eta postaz egindako kontsultak ia guztiz desagertu dira, bere garaian faxarekin gertatu zen bezala.

Dokumentu elektronikoaren erabilgarritasun handiagoak –Emakunderen webgunean nahiz Dokumentazio Zentroaren gure katalogoan– dokumentuak deskargatzeko aukera eskaintzen du Emakunderen webgunean, maileguan eskatu beharrik izan gabe, eta hori zuzenean eragiten ari da azken urteetan hauteman den zentrori



egindako eskaeren beherakadan, baita artatutako telefono bidezko kontsulten kopuruan ere. Hori gorabehera, liburuen mailegu kopuruak gora egin du, 2017an 55 mailegu izatetik iaz (2018) 91 mailegu izatera igaro baitira. Ikus-entzunezko dokumentuei dagokienez, 8 mailegu egin dira. Telefono bidezko kontsultei dagokienez, urtean zehar 368 dei jaso dira. Aurreko urteetan bezala, deikopurua handiagoa izan da azaroan eta martxoan, emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna eta emakumearen nazioarteko eguna direla eta.

Bestalde, dokumentu elektronikoen eskaera (Zentroan gordetako monografiaren nahiz artikuluen eta dokumentuen, edo sarean kontsultatutako baliabideen eskaera) gero eta handiagoa da. Askotan, Emakundek argitaratu dituen (baita paperean ere) baina agortuta dauden liburuak izaten dira. Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Emakundeko langileek egindako barneko informazio- eta dokumentazio-kontsultetan ere hautematen da dokumentu elektronikoen kontsulta-kopuruaren igoera, eta, horien artean, aldizkari elektronikoetako artikulua eta doktorego-tesiak gailentzen dira. Maileguri dagokienez, 75 liburu-mailegu eta ikus-entzunezko dokumentu, bideo, dvd eta CD-ROM-en 8 eskaera erregistratu dira. Berdintasunaren gaiaren inguruko bibliografiak edota edozein motatako informazioa ere eskatu da. Eskaera kopurua jaitsi da, neurri handi batean, Zentroko langileak aldatu egin direlako urtean zehar. Horren ondorioz, zentroa egun batzuetan hutsik egon zen eta barneko eskaerak ez ziren kontabilizatu, kanpokoak, ordea, bai.

Estatuko beste dokumentazio-zentro batzuekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jardura eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola «Aldizkarien Katalogo Kolektiboa» proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai.

Gainera, «Emakumea» gaiarentzat espezifikoak diren indexatze-tresnen (tesaurora) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte. Gainera, urteko bigarren hiruhilekoan, funtseko liburu bikoiztuak banatu zituen sareko kide diren emakumeen liburutegi eta dokumentazio-zentroen artean.

Bestalde, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko dirulaguntza izendun baten bitartez.



Dokumentazio-zentroa





3. **Gizarte osoa** xede duten jarduerak



Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaile eta helburu handia. Memoria honen lehenengo zatian Emakundek batez ere erakunde publikoen eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sortutako egitura eta tresnen bidez gizarteari begira sustatutako ekintzak deskribatu dira. Bigarren zati honetan, herritarrei zuzenean zuzendutako ekintzak zehazten dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin

Aholku Batzordearen³ esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain, Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak ematen dizkie hala eskatzen duten elkartei, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, Autonomia Erkidegoan eta Autonomia Erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu behar diren proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarten ordezkarien lurralde arteko batzordea. Interlokuzio soziopolitikorako prestakuntza-proiektua.
- Komunikazio-batzordea lurralde-eremuan.
- Landa-eremuetako emakumeen elkarteak.
- EAEko emakume ijitoen elkarteak.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.
- Emakume etorkinen elkarteak.

Sareak sortzeko sustapena dela eta, Emakundek Emakumeen elkarrekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu du. Gune horietan, besteak beste, prestakuntza-beharrak landu

dira, baita antzeko interesak dituzten elkarten artean koordinatutako proiektuak antolatzeko formulak ere. Halaber, jarduketa-ereduak sortzeko lanerako bide eman du, parte-hartze aktiboagorako, bai emakumeen erakundeen barruko barne-dinamikari dagokionez, bai horiek hainbat eremutako sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Halaber, lurralde historiko bakoitzean komunikazio-plan baten helburu eta ekintza egokiak ezartzen lagundu eta erraztu dugu. Plan horrek aurtengo ekintzak bideratu ditu. Komunikazio Plan horren helburua aintzatespen eta ikusgaitasun handiagoa lortzea eta Emakunderen Aholku Batzordearen lana gizareratzea da gizartean duen interlokuzio-zeregina finkatzen laguntzeko. Plan hori egiteko, modu aktiboan jardun dute lurraldeetako Aholku Azpibatzordeek eta tresnak sortu dira helburua lortzen laguntzeko. Tresna horien artean emakumeen eta Emakunderen arteko elkarrizketa soziopolitikoaren esanahiaren berri ematen duen ikus-entzunezko baten garapena dago.

Emakume Nekazarien Estatutuaren garapenaren Jarraipena egiteko Batzordean parte hartu dugu. Estatutu horretan emakumeen elkartegintzaren aldeko mugimenduek eta beste erakunde batzuek adierazitako premiak eta egindako eskaerak hartu dira kontuan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eguneratzen eta EAEko emakumeen elkarten gida eguneratzeko helburuarekin jarraitu da.

Aurten, metodologia bat diseinatu eta abian jarri da Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aholku Azpibatzordeen arteko komunikazioak eta loturak



sistematizatzeko tresna laguntzaileen bitartez, Komunikazio Planean adostutako helburu batzuk betetzeko.

Metodologia hori diseinatzeko eta abian jartzeko, hiru Aholku Azpibatzaordeetako elkarteek ordezkariek parte hartu dute, metodologia eraginkorra adosteko, lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Biktima diren eta bizirik atera diren emakumeen elkarteek arteko dinamikez baliatuz, hainbat bilera egin dira bizirik atera diren eta/edo biktima izan diren emakumeen elkarteekin gogoeta egiteko eta lan egiteko baterako sare bat sortzeko aukerarik ote dagoen aztertzeko. Dinamika horiek Volar dokumentala egitearen eta proiektatzaren ondorioz sortu dira. Gaur egun, prozesua bultzada berri baten zain dago.

Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarteen eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko trukea bideratzen saiatzen dela.

3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako dirulaguntzak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzekeo babesa emateaz gain, Emakundek elkarteen jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, dirulaguntzen urteroko deialdiaren bitartez.

Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, baita emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua honako hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen dituzten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza tekniko ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen dirulaguntzen deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Deialdira aurkeztu diren 144 elkarteetatik, 120k jaso dute dirulaguntza⁴. Guztira, 185 proiektu lagundu dira diruz, eta 376.000 euro erabili dira horretarako.

4. Vikus elkarteak 3. eranskinean: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako dirulaguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.

5. Ikus proiektuak 4. eranskinean: Dirulaguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda



3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak

Esku-hartze sozial horren barruan, irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

Hori guztia dela eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2018. urtean, jarraitu du ekonomikoki sentsibilizatzeko eta/edo emakumeen kontrako jarrera indartsuak prebenitzeko ekintzak martxan jartzen dituzten erakundeen jarduerari laguntzen, baita indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasuneko jarrerak sortzera bideratzen dituzten estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 240.000 eurokoa da. 89 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 40 diruz lagundutako proiektuak izan dira⁵; aldiz, behar besteko puntuazioa lortu arren, 42 proiektu ez dute dirulaguntzarik jaso, kreditua agortu delako. Beste 24 proiektu ez dute gutxienezko puntuazioa lortu.

3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatuz joan denez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio-eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere. Bereziki, enpresa txikiek eta enpresa kooperatibek informazioa eskatzeko egindako eskaeren kopurua igo egin da, baita sexu-jazarpenaren aurkako eta sexu-arrazoiengatikoko protokolo espezifikoak aplikatzeari buruzko informazioa eskatzeko egindako eskaeren kopurua ere.

3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza kontratatzeko dirulaguntzen deialdia egin da. Horrez gain, 11 enpresa hauei dirulaguntza eman zaie enpresa horietako batek dirulaguntzari uko egin ondoren:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (eurotan)
Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte	8.247,36
BCAM-Basque Center For Applied Mathematics Elkarte	9.063,00
Altel SLU	7.115,50
Euskadiko Lan Sozietateen Taldea	6.001,60
Nazaret Fundazioa	10.000,00
Etorkintza fundazioa	10.000,00
Centro Educación Vial Rekord SL	4.278,00
Azaro Fundazioa	8.729,72
Cebanc SA	2.225,00
Centro Formacion Admon. y Hostelería SL	2.225,00
Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioa	8.614,82
GUZTIRA	76.500,00



Dirulaguntza eman zitzaien erakundeen artetik sei Bizkaikoak dira, hiru Gipuzkoakoak eta bi Arabakoak. Jarduera-esparruari dagokionez, aipatu behar da erakunde guztiak zerbitzuen sektorekoak direla, eta, zehazki, hauek daudela: prestakuntzako, irakaskuntzako eta ikerketako bost zentro, esku-hartze sozialeko hiru elkarte, elkarteko teknologiko bat eta onura publikoko zenbait erakunde. Guztira, zifrei dagokienez, baliteke 266 emakumerentzat eta 219 gizonentzat izatea onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egitea aurreikusitako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.



Lankidetzako erakunde onartuak

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzako Erakundeak

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte-eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere.

Gero, 2014an 11/2014 Dekretu berria onartu zen, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz.

Dekretu berriaren arabera, 2018an emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa aitortu dira 12 erakunde eta 11 enpresaren eskariak ezetsi dira. Honako hauek dira:

AITORTUAK

1. Ekia Intervención Psicosocial
2. Garuneko paralisia duten pertsonen laguntzeko Bizkaiko Elkarteak.
ASPACE-BIZKAIA Bahía de Bizkaia Gas SL
3. Excavaciones y Transportes ORSA SL
4. Uraren Euskal Agentzia
5. Hegala Norte
6. Centro de Estudios Inateg SL
7. Gisma Asesoramiento SLU
8. Centro de estudios Juritecna SL
9. Zubeldia Formacion Prestakuntza S.L
10. Centro de enseñanza San Roque SL
11. Servicentric SL
12. Do's Formación

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzako Erakunde gisa aitortutako 105 erakunde daude.



3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Urtean zehar hiru enpresak homologatzeko eskabidea egin dute eta hirurak homologatu dira: Kalaka, Koop Elk. Txikia, Equipare Koop. Elk. Txikia eta AZ Participación.

Bestalde, homologatutako kontsultoreen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

Abenduaren 31n emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan homologatutako 22 kontsultore zeuden.

3.2.5. BAI SAREA. Gizonen eta emakumeen berdintasunerako lankidetzaren Sarea

BAI SAREA Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak sustatutako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakundeek osatutako sare bat da, **2018ko martxoaren 19an eratu dena formalki**, eraikitze-prozesuan urte eta erdi eman ondoren.

BAI Sareak justizia sozialean oinarritutako helburu hauek lortu nahi ditu:

- Esperientziak, jakintzak, praktikak, ikaskuntzak, ideiak, metodologiak eta abar partekatzea.
- Neurriak garatzen, tresnak egiten eta ekimen partekatuetan laguntzea.
- Sarea barnean (erakundeetan) eta kanpoan (gizartean) ezagutzera ematea. Sarea ekintza-eredutzat eta iritzia emateko erreferentetzat hartzen da (gai profesionalean, enpresa-arloko gaietan, gai ekonomikoetan eta gai sozialetan, besteak beste).

- Enpresaren eta gizartearen errealitatea aldatzea, lan-eremuko genero-arrakalak murriztuz eta berdintasuna nahiz justizia soziala erakundearen balio estrategikoak izan daitezen bultzatuz.

«Emakumeak ahalduz NBE EMAKUMEAK erakundeak enpresei proposatutako printzipioen» arabera, eta Euskadiko errealitatera egokituta, BAI SAREa osatzen duten erakundeek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea erakundearen zuzendaritzatik.
2. Emakumeak eta gizonak modu bidezkoan tratatzea lanean.
3. Giza eskubideak eta bereizkeriarik eza errespetatzea eta aldezea.
4. Langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea zaintzea.
5. Emakumeen lanbide-garapena sustatzea.
6. Enpresa-garapeneko praktikak, erosketak eta marketina egitea berdintasunaren alde.
7. Ingurune soziolaboralean berdintasuna sustatzea; eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako aurrerapenak ebaluatzea eta hedatzea.

Honako hauek dira gaur egun BAI Sarea osatzen duten Lankidetzaren Erakundeak:

1. AGINTZARI
2. ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA KOOP. E.
3. BIDEGINTZA GEK GIZARTE-EKIMENEN KOOPERATIBA
4. BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEA
5. GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO MARGOTU ELKARTEA
6. ZABALTZEN GIZARTERATZE-ELKARTEA
7. T4 ELKARTEA
8. ASPACE BIZKAIA (GARUNEN PARALISIA DUTEN PERTSONEN LAGUNTZEKO BIZKAIKO ELKARTEA)
9. AUTOBUSES CUADRA SA
10. AUTOBUSES LA GUIPUZCOANA SL
11. AUTOBUSES LA UNIÓN SA
12. APNABI- AUTISMO BIZKAIA



13. AVIFES (GAIXOTASUN MENTALAK DITUZTEN PERTSONEN ETA EUREN SENITARTEKOEN BIZKAIKO ELKARTEA)
14. AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS SL
15. BAHÍA DE BIZKAIA GAS SL
16. BERRIA TALDEA
17. BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK
18. BIHARKO
19. BULTZ LAN
20. CÁRITAS BIZKAIA
21. CDE
22. BILBOKO LAGUN ARTEAN HARRERA ZENTROA
23. GURUTZE GORRIAREN ZENTRO SOZIOSANITARIOA
24. DONOSTIAKO TRANBIA ELKARTEA SAU
25. COMPAÑÍA TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA
26. CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA SL
27. CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL
28. ARABAKO GURUTZE GORRIA
29. DAITEKE CAREERS&JOBS SL
30. EDE FUNDAZIOA
31. EJIE SA
32. ELECTRA VITORIA S KOOP
33. ELHUYAR-ZUBIZE SLU
34. EMUN KOOP E
35. EUSKAL HERRIKO SEXU HEZIKETA ESKOLA KOOP
36. EUSKO TREN SA
37. IZAN FUNDAZIOA
38. LANTEGI BATUAK FUNDAZIOA
39. NUEVO FUTURO GI FUNDAZIOA
40. GAZTAROA SARTU KOOP
41. GOIZTIRI
42. GUGGENHEIM BILBAO
43. IHOBE SA



BAI SAREA-ren sorrera

- | | |
|--|-----------------------------------|
| 44. INGTEAM POWER TECHNOLOGY (TECHNOLOGY ETA ELECTRONICS EKOIZPEN-UNITATEAK) | 54. ORTZADAR S |
| 45. IPACE SL | 55. PESA |
| 46. ITELAZPI SA | 56. PROSPEKTIKER SA |
| 47. IZENPE SA | 57. SARTU ARABA |
| 48. KIROL MANAGEMENT | 58. SATSE - ERIZAINZTA SINDIKATUA |
| 49. LABORAL KUTXA | 59. SUSPERGINTZA ELKARTEA |
| 50. METRO BILBAO SA | 60. USOA LANTEGIA, SAU |
| 51. MU ENPRESAGINTZA S KOOP | 61. VIRTUALWARE 2007 SA |
| 52. MURGIBE | 62. ZUBIETXE |
| 53. ORONA S KOOP | 63. ZUBIZARRETA CONSULTING |

Sareak hainbat mailatan lan egiten du: osoko bileretan, batzarretan, talde espezifikokoetan egiten den lanean gaiaren arabera eta truke birtuala eginez blog baten bitartez. Horretarako, sareak Gizarte Eraldaketa lortzeko Berdintasunean espezializatuta dagoen kontsultoretza ERABERRIA Gunea SLren laguntza dauka.



3.2.6. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Prestakuntzako materialak eta jarduerak lantzea enpresei laguntzeko beste bide bat da. 2018. urtean, honako dokumentu hauek berri dira:

«**Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua**» eguneratu da. Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.

«**EAEen Emakumeen Ekintzaitza Bultzatzeko Laguntzen Mapa**» eguneratu da. Enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.

Mikroenpresetan eta enpresa txikietan emakumeen eta gizonen berdintasuneko diagnostiko bat eta plan bat egiteko metodologia egin da. 2018. urtean zehar, metodologia testatu eta erkatu da homologatutako kontsultoreekin eta funtsezko eragileekin. Azkenik, kudeaketa aurreratuen eredura egokitzen den metodologia bat daukagu.

EUSKALITekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, kudeaketa aurreratuan berdintasun-praktikak egiten laguntzen jarraitu dugu **Berdintasuna Kudeaketa Praktika Olean sustatzen duen Bilatzailea** elikatzeko <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/>

3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena aldezteko sektore pribatuan

Atal honetan, Emakundek 2018an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen) 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, lau jarduketa egin dira:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Txostenak egitea.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexa eta salaketen prozedurak.

Berehalako aholkularitza, telefono bidez eta aurrez aurre, eskatzaileei

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzuteko. 2018. urtean, berehalako aholkularitza emateko 250 kontsulta erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak.

Aurrez aurreko arreta-zerbitzua etengabe eskaintzen da Emakunderen Gasteizko egoitzan eta, gainera, aldeztu aurretik hitzordua eskatuz arreta pertsonaleko zerbitzua ematen jarraitzen da Bilboko eta Donostiako egoitzetan.

Kontsulta horien gai nagusiak Etxeko Zerbitzarien araudiari buruzkoak dira batez ere. Esparru horretako langile gehienak, denak ez esateagatik, emakumeak dira. Gainera, emakume horiek diskriminazio asko jasan behar izaten dituzte; izan ere,



sarritan egoera irregularrean izaten dira, eta ez dituzte ezagutzen zer arau bete behar dituzten.

Aurretiko azterlana eta kexa- eta salaketa-prozedurak behar dituzten kontsultak

Ildatiz erantzundako kontsultak, aurretiko azterlana behar dutenak, eta burututako kexa- eta salaketa-prozedurak, guztira 184 dira, eta horietatik 67 kontsultak izan dira (% 36), 82 kexak (% 45) eta 35 salaketak (% 19).

Kontsulta egiteko, kexatzeko eta salatzeko prozedura horiek jarduten duten eremu nagusi gehienek hedabideetan eta publikitatean jartzen dute arreta (% 37), ondoren lan-eremua dago (% 30), jarraian, zerbitzuen eremua (% 16), bestelakoak (% 11), kirolaren eremua (% 4) eta, azkenik, eremu asoziatiboa (% 2). Bestelakoak taldean, argi eta garbi, nagusi dira eremu pertsonalarekin lotutako kasuak (familia-arazoekin, dibortzioekin eta banaketekin). Lan-eremuko kontsultak amatasun- eta edoskitze-baimenak hartzeari buruzkoak dira batez ere, baita familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzetik eratorritako eskubideak baliatzeari buruzkoak ere, eta, bereziki, aurtun areagotu egin da sexu-jazarpenaren aurkako eta sexu-arrazoiengatiko Protokoloak onartzeari, garatzeari eta aplikatzeari buruzko kontsulta kopurua.

3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordez generozereginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun partekatu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonei dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.



Berdintasunerako Foroa

Nahitaez sentsibilizatu behar da gizartea oro har, baita gizartearengan berdintasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko beharrezko inguruan eragiten duten profesional, gizarte-eragile eta bestelako erakundeak ere. Hori dela eta, Emakunderen zereginetako bat da gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, berdintasunerako Emakunde saria eta eztabaida-taldeen eta komunikabideetan etengabe parte hartzea.



Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.

3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan, eskola-egutegiaren arabera lan egiten da; beraz, 2018ko datuak bi ikasturtetan banatzen dira: 2017-2018 eta 2018-2019. 2018an, 43 ikastetxek hartu dute parte; ikastetxe horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie Hezkuntza Sailarekin batera egindako deialdian, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako gida-planaren esparruan. Ikastetxe horietan 2.025 neska eta

2.088 mutil izan zituzten 2017/2018 ikasturtean, eta zifra horiek honako hauek izan ziren 2018-2019 ikasturtean: 2.888 neska eta 3.181 mutil.

2018an, honako hauek izan dira jarduketeta nabarmenenak:

- 3 prestakuntza-jardunaldi orokor egin dira, programan parte hartzen duten irakasle guztiei zuzenduak (154 emakumezko irakaslek eta 18 gionezko irakaslek parte hartu dute guztira); horietan, programaren garapenaren kontu orokorren berri emateaz gainera, hainbat gai aztertu dira, ikasgelako lanarekin lotuak, berdintasunetik:
 - Urtarrilaren 26an II. Jardunaldi Orokorra egin zen. Katixa Agirre Miguélezek parte hartu zuen «*Sexismoa ikus-entzunezko baliabideetan*» hitzaldiarekin eta Carmen Ruiz Repullok «*Itxura pertsonala, autoestimua eta onarpena berdintasunaren ikuspegitik*» izeneko hitzaldiarekin. 46 emakume eta 7 gizon bertaratu ziren.
 - Apirilaren 17an III. Jardunaldi Orokorra egin zen. Elena Simon Rodriguezek parte hartu zuen «*Hezkidetzeta herritarrentzat eta eskola bizikidetzan*» hitzaldiarekin, eta Marivi Fernández Roldanek «*Hezkidetzeta eskola bizikidetzeta hobetzeko*» hitzaldiarekin. 39 emakume eta 4 gizon bertaratu ziren.
 - Irailaren 25ean IV. Jardunaldi Orokorra egin zen. Amparo Tomé Gonzalezek parte hartu zuen hitzaldi honekin: «*Hezkidetzeta azken 15 urteetako praktikatik: esperientziak eta ibilbidea, aurrera pausuak eta zailtasunak, lorpenak eta erronkak*». Maribel Pizarro Pachecok bere aldetik, «*NAHIKO! programako ikasleen ebaluazioen emaitzak*» izeneko hitzaldia eman zuen. Bi mahai-inguru ere egin ziren, bata Berritzeguneetako aholkulariekin, eta, bestea, programan parte hartzen duten zenbait ikastetxerekin. Clown-ondorioez Virginia Imaz arduratu zen.



Nahiko programaren II. Jardunaldi orokorra



- 19 mintegi egin dira hiru hilean behin. Mintegiotan berriazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak probatu dira eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da. Mintegietan 164 emakumezko irakaslek eta 57 gizonezko irakaslek hartu dute parte guztira.
- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.
- Gainera, programako material guztiak digitalizatzeko prozesu bat amaitu da; irakasleen gidak, familia eta ikasleen koadernoak eta jolas guztiak probatu dira eta erabileran hautemandako hainbat hobekuntza egin dira.

3.4.2. Beldur Barik programa

2009. urtean hasi zenez geroztik, programa finkatu eta hedatu egin da eta Emakundek, 2014. urtean, bere gain hartu zuen programaren kudeaketa. Beldur Barik programa urtero egiten da, gazteen artean hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sortzeko, indarkeria sexistaren aurpegi guztiak identifikatzen jakiteko; ondoren, banakako eta taldekako jarrera eta jokabideak eraldatu eta eraiki nahi dira gazteekin, gertatzen diren desberdintasun- eta indarkeria-egoerak garaitu ahal izateko.

Baterako kudeaketa egiteko, jarraipena eman zaio lankidetzeta-hitzarmenari Foru Aldundi bakoitzarekin, Hezkuntza Sailarekin, Gazteria Zuzendaritzarekin, EITBrekin eta UPV/EHUrekin.

2018ko kanpainatik ardatzen ganean lan egiteko irakasleentzat eta gazteen monitoreentzat prestatutako material monografikoak nabarmendu behar



Beldur Barik Kartela



ditugu: Sare erantzun moreak, Maitezmindu (errespetuzko eta berdintasunezko harremanak lantzeko) eta Txo! Kontzientzia piztu eta jarrera berriztu (maskulinitate hegemonikoarekin lotutako jarrerari eta estereotipoei buruzko gogoeta egiteko); baita bideoak egiteko eta editatzeko Gida bat ere. Beldur Barik lehiaketaren 2018. edizioan 129 udalerririk hartu dute parte eta 309 bideo aurkeztu dira Beldur Barik Topaketan; sariak emateko Gasteizen egin zen ekitaldian 250 gaztek hartu zuten parte.



Gizonduz ekimenaren 10. urteurrena

3.4.3. Volar, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen ordainerako proiektua

Volar dokumentala, Bertha Gaztelumendik zuzendua, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten 2017an. Emakundek herritarrei eta elkartei eskaini die filma biztanleria sentsibilizatzen jarrai dezaten. Era berean, udalak eta elkarteak Volar filmeko emakume protagonistekin harremanetan jartzea erraztu da, proiektzioen ondoren eztabaida-foroetan egon zitezten, beren esperientziei buruz hausnartzeko eta herritarrei gizarte-aldaketari buruz sentikortzeko. 2018an, Volar dokumentala herri askotan eman da: dokumentala emateko 297 eskaera egin dituzte hainbat instantziak (elkarteek, erakundeek, eta abar). Askotan, behin baino gehiagotan emateko eskatu dute.

Halaber, zenbait zinema-jaialditan aurkeztu da eta harrera oso ona izan du. Prozesuarekin jarraitzeko, zenbait bilera izan ditugu bizirik atera diren eta biktima izan diren emakumeen elkarteekin, lanerako eta baterako hausnarketarako sare bat sortzeko aukera aztertzeko.

3.4.4. Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezten sustatzea da. Honako helburu hauek ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

2018. urtean, honako jarduera hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:



Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea (www.euskadi.eus/gizonduz) administratzea.

Webgune horrek ekimenari buruzko informazio zabala hainbat euskarritan eskaintzen du, hala nola elkarrizketekin osatutako atalak, dokumentazio gunea, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, etab. Gainera, bloga ere eskura dago, herritarrei zabalduriko gunea, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasunarekin zerikusia duten berriei buruzko iritziak, hausnarketak eta iruzkinak adierazi ahal izateko. 2018an, 1 elkarrizketa eta blogeko 52 sarrera argitaratu direla azpimarratu behar da.

Sare sozialetan parte hartzea. Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldi behin eguneratu egin dira. Nabarmenezkoa da Facebooken 2018an 4.917 jarraitzaile izan genituela (% 58 gizonak), 1.776 Twitterren eta 2.856 ikustaldi YouTube.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza- programa. 2018an jarri zen abian programa honen hamargarren edizioa. Zenbait ikastaroz osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira eta beste batzuk, berriz, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitze modukoak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionalek, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola, osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa, eta abar. 2018an, 366 aurrez aurreko prestakuntza-ordu eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 778 emakumek hartu dute parte, honela banatuta: 481 gizonak eta 227 emakumek, ez-bitar gisa identifikatu diren 52 pertsonak eta gai horri erantzun ez dioten 18 pertsonak. Bestalde, 2018an, 76 pertsonak (62 gizonak eta 14 emakumek) amaitu dute online sentsibilizazio-ikastaroa. Azkenik, UPV/EHUrekin elkarlanean arituz maskulinitatei buruz antolatu den online ikastaroaren

4 edizioetan, 291 pertsonak gainditu dute ikastaroa: 206 emakumek eta 85 gizonak.

«**Gazteak Berdintasunean 2.0**» proiektua. Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziaioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da,



Gazteak Berdintasunean 2.0



egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.

- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2018. urtean zehar, proiektua eta horren osagaiak frogatu dituzte 3 ikastetxetan. Aipatutako prozesuan, honako hauek parte hartu dute: Lasarteko Ikastolak, Bilboko Margotu Lanbide Heziketako Zentroak eta Bilboko Lanbide Heziketako San Luis Zentroak. Irakasleentzako ikastaroetan 6 emakumek hartu dute parte. Ikasleentzako ikastaroetan, aldiz, 253 lagunek: 125 emakumek eta 128 gizonak.

Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea, baita Berdintasunerako Gunea-rena ere.

CGizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak horien publizitatea egin du Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

Gizon politikoen taldeak. Toki-eremuan eta Eusko Jaurlaritzaren eremuan berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra dauden gizonetzko politikarien taldeak sortzeko prozesuak garatu ditugu.

Jardunaldiak. «Euskal gizonak berdintasunaren alde» jardunaldiak antolatu ditugu. Lehendakariak aurkeztu ditu jardunaldiok, eta, horietan, Gizonduz erakundearen hamargarren urteurrena ospatu da.

«Gizonok esan eta egin» kanpaina. Euskadiko gizonak beren eguneroko bizitzan berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekintza zehatzekin konpromisoa hartzea helburu duen kanpaina hori diseinatu eta hedatu dugu. Kanpaina horren euskarria aplikazio informatiko bat da, interesa duten gizonak informazioa eta baliabideak ematen dizkiena beren konpromisoak identifikatzen eta praktikan jartzen laguntzeko. Era berean, konpromiso hori betetzen ote den jarraipena egiteko sistema bat jartzen du haien eskura.

Beste sentsibilizazio-jarduera batzuk. Con el fin de dar a conocer Gizonduz, Emakunde ha intervenido en diferentes medios de comunicación y se ha presentado el programa en distintos foros, entre los que cabe destacar:

- Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko Nazioarteko Konferentzian. Konferentzia Eudelek eta CMREk antolatu zuten, eta Bilbon egin zen.
- Gizakia Helburu Elkartearen XX. jardunaldiak, adikzioetan esku hartzearen inguruko ikuspegi integrala izateari buruzkoa.
- CEPAIM Fundazioak antolatutako «¿Y Los hombres qué?» jardunaldiak.
- Kultura, Komunikazioa eta Garapenerako XI. Topaketa «Musika, sexua, kirola, gizonen gaiak dira?» izenekoa, UPV/EHUko udako ikastaroaren esparruan.
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Lan Sailak antolatutako «Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko elkarlanean» jardunaldia.
- Osakidetzak antolatutako Genero Indarkeriari buruzko VII. Jardunaldia.
- Indarkeria sexistaren alorreko jarduketan gizonentzako politika publikoei buruzko lan-saioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutakoa.
- Berdintasunaren alde dauden gizonekin lan-ildo bat garatzeko jardunaldia, Kanarietako Gobernuak antolatutakoa.
- Emakunderen eta Txileko Gobernuaren Presidentetzaren Fundazioen Sareko kide den Txileko Familien Fundazioaren artean sinatutako Memorandumaren esparruan, Fundazio horrek antolatutako «Los hombres y la igualdad» mintegia, gizonak berdintasunean sar daitezzen sustatzeko.



3.4.5. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen Nazioarteko Eguna

2018an emakumearen nazioarteko egunerako –martxoak 8– diseinatutako kanpainak zera eskatzen die helduei: belaunaldi gazteagoekin arduratsu jokatzeko eta egunero transmititzeko berdintasuna bizitzaren arlo guztietan. Kanpainak, «*Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna*» lelopean, neskatilak eta mutikoak ditu protagonista, haien bidez gogorarazten baitigu ikastaldi baten fruitu direla haien jarrerak, balioak, bizitzaren ikuspegia...

Sentsibilizazio-kanpainak azpimarratzen duenez, berdintasunean oinarritutako balioak ez dira berez sortzen; berdintasuna ikasi egiten da, beste balio, jarrera edo gizartearen jokatzeko modu batzuk ikasten diren bezala, eta, horrenbestez, pertsonen sozializatzearekin zerikusia duten eragile guztiek erantzukizun handia dute berdintasuna eta eredu berdintzaileak irakasterakoan, eta, zentzu horretan, bereziki belaunaldi gazteengan jarri behar dute arreta.

Kanpainak otsailaren 27tik martxoaren 13ra iraun zuen eta bideoak, iragarkiak eta kartelak erabili ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien erakundeetara, ikastetxeei, osasun-zentzoei, elkartei, enpresei, kultura-zentzoei, liburutegiei, etab.

Orobat, eta egunero belaunaldi berriei berdintasuna irakasten dieten bestelako jarrerak eta ekintzak erakuste aldera, herritarrak gonbidatuko dira sare sozialetan traola hau erabiltzera: #Enseñoligualdad #BerdintasunalrakastenDut.

Eskola-agenda

2018an, eskola-agenda (2018-2019) prestatu da; agendak berdintasunarekin eta pertsona ororen errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Agenda horren bidez (EAEko DBHko 1. eta 2. mailako ikasle guztiei banatu zaie), honako gai hauekin lotutako mezuak zabaldu dira:

bizi-proiektuak hautatzeko askatasuna, «*nesken gauzak*» eta «*mutilen gauzak*» daudela markatzen dituzten estereotipoekin amaitzeko beharrezana, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lana partekatutako izateko beharrezana, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, baldintza fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzeko beharra, gorputz perfektuen tiranotasuna salatzen dituzten mezuak, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko beharra (neskak ala mutilak izan), neska eta mutilen artean adiskidetasuna partekatzeko beharra, emakumeen jakintzak ezagutzeko belaunaldi berrien eredu izateko etab.



Martxoaren 8ko kanpaina



Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, kontzientziazio-kanpaina bat egiten da urtero Berdinsarearen esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013tik, Emakunde kanpaina hau sustatzeko eta kudeatzeko ardura du; horretarako, zuzenean sustatzen du diseinua, garapena eta ebaluazioa, hiru foru-aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza Sailarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EITBrekin lankidetzan.



Beldur Barik Topaketa

Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan, Beldur Barik programa garatzen da; gazteei zuzenduta dago. Programa horren helburu nagusia da emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea eta, horretarako, neskei indarkeria sexista identifikatzeko eta hari aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea eta mutil gazteekin beren jarrera sexistak prebenitzeko lan egitea eta beren eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko rol aktiboa hartzera animatzea.

Beldur Bariken barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

Edizio honetan, Euskadiko 58 udalerritan egindako 300 lan baino gehiago aurkeztu dira. Era berean, tokian tokiko lehiaketa ugari ere antolatu dira. Aurten gai bat baino gehiago landu dira. Gehien landu diren gaietako batzuk honako hauek izan dira: beren egunerokotasunean pairatzen duten sexismoa eta bazterkeria, edertasun-kanonak kritikatzeari; kaleko jazarpena, maitasun erromantikoa eta sare sozialen bitartez egiten den kontrola, maskulinitate-eredu hegemonikoa zalantzan jartzeko premia beste eredu batzuk ezagutzera emanez eta nesken ahalduzuekin sexismoaren aurrean sareak sortzearen garrantzia. Gaiak askotarikoak izan badira ere, ikusten da gazteek aukeratu dituzten gaiak sakon aztertu direla gazte horiek indarkeria sexistaren aurrean ematen duten erantzuna adierazteko garaian.

Beldur Barik lehiaketaren helburua da gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoei eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko individual edo kolektiboak onartzea, balioztatzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatutako jarrerak eta jokabideak. Sariak azaroaren 24an eman ziren 2018ko Beldur Barik Topaketan, Gasteizen. Honako hauek dira bideo



saridunak: Mutrikutik bidalitako «Alkarrekin» bideoak irabazi zuen lehenengo kategorian (12-17 urte) eta Bilboko «Freecarola» lanak irabazi zuen saria bigarren kategorian (18-26 urte). Lehenengo kategorian aipamen bereziaren saria eman zioten Usurbilen egindako «Harrapa zak!» bideoari. Bigarren kategoriako aipamen bereziaren saria Mungiako «Bagara» bideoari eman zioten. Ikus-entzunezko produkzio hoberenarentzako saria Eibarko «Fruterixia» lanari eman zioten.

Beldur Barik programaren 2017ko lan-estrategiari dagokionez, udalek tokiko ekimenak gara ditzaten sustatzen jarraitu da. Hori dela-eta, programaren aldetik aholkularitza eta laguntza sendotu dira parte hartzen duten udalerrietan tokiko hausnarketa-prozesuak eta gazteak mugiarazteko prozesuak diseinatu eta garatzeko orduan. Gainera, jarraitu da ikastetxeen parte-hartzeari bidea ematen, bai eta emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko lankidetzari ere.

Bestalde, Emakunderen sare sozialetatik, azaroaren 19tik 25era, kanpaina bat jarri da abian lelo honekin: #BaiEsatenDiot indarkeria sexistarik gabeko gizarte bat eraikitzeari. Aste horretan bertan, iragarki-kanpaina bat jarri zen abian EITBko irratietan lelo berarekin.

3.4.6. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Emakundek urriaren 3tik abenduaren 21era bitartean Berdintasunerako 2018ko Foroa jarri zuen martxan; baterako espazio horretan, erakunde publiko eta pribatuek emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte, horrela, eremu horretan Euskadin egiten den lana ikusarazteko.

2018an, Foro horren hamabosgarren edizioa egin da, martxoaren 8a ospatzeko Emakundek sustatutako kanpainaren lelo bera erabiliz: «Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna». Helburu nagusietako bat berdintasunaren mezua

pertsona eta herri gehiagotara helaraztea izan da; horregatik, aurten ere unitate ibiltari bat izan dugu, foroaren mezua gehiago ikusarazteko EAEko herri askotan.

Gainera, zenbait erakundek, elkartek, enpresak eta udalek eskatuta, autobusa horiek antolatutako jarduera batzuen topaleku izan da, eta,aldi berean, herritarrekiko hurbiltasuna sustatu da. Bestalde, unitate mugikorra eskola-ikasgela bezala erabili da; bertan, bi berdintasun-teknikarik Nahiko eta Beldur Barik programen barnean sartutako zenbait tailer eman dituzte, besteak beste.

117 erakundek hartu dute parte: elkarteak, enpresak, fundazioak, Eusko Jaurlaritzako sailen zuzendaritzak, unibertsitateak edo ikastetxeak, alderdi



Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako XV. Foroa



politikoak, enpresa-elkarteak, elkargo profesionalak, udalak eta sindikatuak. Guztira, 101 jarduera egin dira 56 herritan, eta 4.500 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.

3.4.7. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea

Aldizkariak 1.450 harpidedun ditu, eta horiek aldi-aldi berritasun-buletinak jasotzen dituzte euren posta elektronikoan. Sare sozialen babesari esker, aldizkariako edukiok hedapen handia dute.

Elkarreragina formatu digitalaren beste lorpenetako bat da, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.

Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai.

3.4.8. Hedabideetan agertzea

Herritarrek Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

2018an, guztira, hedabideei 29 prentsa-ohar bidali eta prentsaurrekotarako 9 deialdi egin zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendariak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- **Lecciones aprendidas (2018-03-08) Hainbat hedabide**
- **Una ola que no podemos perder (2018-11-25) Hainbat hedabide**

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu

da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan-egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzerakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetariko eta nagusietariko bat.



Virginia Imaz, 2017ko Emakunde Saria



3.4.9. Berdintasunaren Emakunde Saria

Emakunde Sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen -publiko nahiz pribatuen- jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin



EHU eta Deustuko berdintasunerako masterrak, 2018ko Emakunde Saria

dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.

2018an, 2017ko Emakunde Sariaren irabazleari eman zitzaion saria, hots, Virginia Imaz ipuin kontalari eta clown-ari, kontzientzia feministako aktore eta pailazo modura duen ibilbide luze eta ausartagatik, eta emakume eta gizonen berdintasunik eza ikusarazteko eta emakumeen alde lan egiteko aliantzak sortzeko egindako lanarengatik.

Bestalde, Emakunde Sariaren epaimahaiak, aurtun, 2019ko Emakunde Sariaren irabazlea hautatu zuen. Bi masterri eman zion saria: Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Masterra: Berdintasun Agenteak, UPV/EHUkoa, eta Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra, Deustuko Unibertsitatekoa, berdintasun-politiken eremuan eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzearen eremuan profesionalizazio kualifikatuari egiten dioten ekarpenarengatik.

3.4.10. Emakunderen webgunea eta sare sozialak

Emakunderen webgunea herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzetarantz bideratu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, baita sare sozialekin, Irekiarekin, Blogekin, eta abarrekin interakzioan aritzeko ere.

Mantendu eta indartu egin da 2018an, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua; presentzia handiagoa lortu da Facebooken eta Twitterren, eta horrek esan nahi du igoera esanguratsua egon dela jarraitzaile kopuruari dagokionez. Twitterren 6.798 jarraitzaile ditu, Facebooken 7.943, eta Instagramen 1.531.

